

## **HAUR HEZKUNTZAKO GRADUA**

Tailerrak minorra

2019/2020 ikasturtea

### **HEZKIDETZAREN ALDEKO IRAKASLEEK HAURREN GENERO IDENTITATEAZ DUTEN IKUSPEGIA**

Egilea: **GARAZI OTAEGUI LASARTE**

Zuzendaria: **ONINTZA ODRIOZOLA IRIZAR**

**Donostian, 2020ko maiatzaren 3an**

## AURKIBIDEA

|  |    |
|--|----|
| 0. Sarrera   | 3  |
| 1. Ikerketaren helburuak eta hipotesiak                                | 4  |
| 2. Esparru teorikoa eta kontzeptuala                                   | 5  |
| 2.1 Sexu-genero sistema: genero rolak eta estereotipoak                | 5  |
| 2.2 Gizarteratze eragileak   | 9  |
| 2.2.1. Familia   | 9  |
| 2.2.2. Ikus-entzunezko komunikabideak                                  | 10 |
| 2.2.3. Eskola  | 10 |
| 2.3 Eskola hezkidetzailerako genero identitate askea eraikitzeko lekua | 11 |
| 2.3.1. Bilakaera historikoa  | 11 |
| 2.3.2. Eskola hezkidetzailerako bidean lehen urratsak                  | 13 |
| 2.3.3. Irakasleen erronka  | 13 |
| 3. Metodologia   | 15 |
| 3.1 Azterketa eremua   | 15 |
| 3.2 Parte hartzaileak  | 16 |
| 3.3 Informazioa jasotzeko teknikak eta tresnak                         | 17 |
| 3.4 Ikerketaren prozedura  | 19 |
| 3.5 Datuen azterketa   | 20 |
| 4. Emaitzak eta ondorioak  | 20 |
| 4.1 Emaitzak   | 20 |
| 4.2 Ondorioak  | 26 |
| 5. Erreferentzia bibliografikoak                                       | 29 |
| 6. E R A N S K I N A K   | 32 |
| 1. Eranskina: Elkarrizketa sakonen gidioa                              | 32 |
| 2. Eranskina: Transkribapena 1   | 34 |
| 3. Eranskina: Transkribapena 2   | 38 |
| 4. Eranskina: Transkribapena 3   | 46 |
| 5. Eranskina: Transkribapena 4   | 52 |
| 6. Eranskina: Transkribapena 5   | 58 |

## HEZKIDETZAREN ALDEKO IRAKASLEEK HAURREN GENERO IDENTITATEAZ DUTEN IKUSPEGIA

Garazi Otaegui Lasarte

UPV/EHU

Irakasleek garai bakoitzean garrantzitsuak diren gaietan formatu behar izaten dute eta egun, feminismoaren eraginez, genero identitatearen gaia indarra hartzen ari da. Jakina da, haurren genero identitatea eragile ezberdinen bidezko elkarlanean gauzatzen dela. Honenbestez, ikerketa honetan, hezkidetzaren aldeko hautua egin duten Haur Hezkuntzako irakasle talde batek haurren genero identitatearen inguruan duen ikuspegia aztertzen da, baita eraketa prozesu horretan, indarra duten bestelako faktoreen gaineko kontzientzia ere. Metodologia kualitatiboa erabili da, sakoneko bost elkarrizketa ikerketaren oinarri izan direla. Eskuratu diren emaitzek jakinarazten dute, aurrerapauso handiak egin diren arren, irakasleen genero identitatearen ikuspegia oraindik femeninoan eta maskulinoan antolatzen dela. Eta eskolaz kanpoko faktoreek prozesu honetan duten eraginaren kontzientzia sendoa dutela.

*Genero identitatea, Haur Hezkuntza, irakasleak, gizarteratze eragileak*

Los/as profesores/as deben de formarse en distintos temas que en cada época son importantes, hoy en día, bajo la influencia del feminismo, el tema sobre la identidad de género está cogiendo fuerza. Se sabe que la identidad de género de los niños y niñas se figura mediante las diferentes agentes socializadoras. Por lo tanto, en esta investigación, se examina la visión que tienen los/as profesores/as de infantil que han optado por la coeducación, sobre la identidad de género de los niños y las niñas; incluso la conciencia sobre los factores que son de importancia en este proceso. Para ello, se ha utilizado una metodología cualitativa, con cinco entrevistas de profundidad como base de la investigación. Los resultados obtenidos indican que, la visión de los/as profesores/as sobre la identidad de género todavía se organiza de manera femenina y masculina; aunque se hayan hecho grandes avances. También se ha demostrado que tienen una fuerte conciencia del impacto de los factores extracurriculares en este proceso.

*Identidad de género, Educación Infantil, profesores/as, agentes socializadoras*

Teachers need to be trained in different topics that are important in every age, today, under the influence of feminism, the issue of gender identity is gaining strength. It is known that children's gender identity is shaped by the different socializing agents. This research examines the views of teachers of children who have opted for coeducation on children's gender identity; including awareness of the factors that are important in this process. To this end, a qualitative methodology has been used, with five in-depth interviews as the basis of the research. The results obtained indicate that, the teachers views on gender identity is still organized in a feminine and masculine way; although great advances have been made. They have also been shown to have a strong awareness of the impact of extracurricular factors on this process.

*Gender identity, Infant Education, teachers, socializing agents*

## 0. Sarrera

Jakina da gizarte honetan badela zenbait alderdi eta alor hobetzeke daudenak. Hala ere, gurpilari bueltaka edo sokari tiraka dihardugu haurrak hezten ustezko berdintasunean, balizko inguru ezegonkor eta aldakorrean. Baina jakina da, historikoki gizon eta emakumeen artean gizarteak sortu eta erreproduzitutako ezberdintasunak egun existitzen direla eta oraindik ere erreproduzitzen ditugula. Hau horrela izanik, irakasle izango garen heinean, oso garrantzizkoa dela deritzogu, genero identitatearen inguruko ikuspegi zabal eta eraikitzaile bat izatea, etorkizuneko haurrek irakasleen begirada irekiago batekin topo egin dezaten.

Zentzu honetan ezinbestekoa da eskola hezkidetzaileria, izan ere, gizarte parekide eta justu baterako tresna dela deritzogu. Hain zuzen ere, horregatik interesatzen zaigu hezkidetzaren aldeko hautua egiten duten irakasleen ikuspegia zein den aztertzea, genero identitatearen begiradatik egungo egoera zein den ikusteko. Hau jakinik, lanaren helburu nagusia, hezkidetzaren aldeko hautua egiten duten Haur Hezkuntzako irakasleek haurren genero identitatearen inguruan duten ikuspegia aztertzea izan da.

Ikerketa aurrera eramateko ondorengo ataletan bereizi da lana. Lehendabizi, ikerketaren helburuak eta hipotesiak zehaztu dira. Jarraian, horiekin eta lanarekin lotura estua duen esparru teoriko eta kontzeptuala garatu da. Geroago, ikerketaren metodologiari buruz aritu gara eta honen segidan, erabilitako metodologiari esker eskuratu diren emaitzak eta ondorioak plazaratu dira. Azkenik, lanari amaiera emateko ikerketan zehar erabili ditugun erreferentzia bibliografikoak eta eranskinak gehitu dira.

Beraz, jarraian datorrena, ikerketa enpirikoa da, testuinguru konkretu bateko egoera aztertzean datzana. Horretarako, metodologia kualitatiboa erabiliz, sakoneko bost elkarrizketa izan dira informazio iturri, hortaz, ikerketaren oinarri. Lana amaitzerakoan, ikusi da, haurren genero identitatearen eraketan zeresan handia dutela kanpo eragileek, hala nola, familiekin. Halaber, Haur Hezkuntzako irakasleek haurren genero identitateaz duten ikuspegia pixkanaka irekitzen doala egiaztatu da, nahiz eta egun, oraindik ere, binarismoan oinarritzen den.

## 1. Ikerketaren helburuak eta hipotesiak

Ikerketaren haria nondik norakoa izan den zehazteko lehenengo atal honetan, ikerketaren helburu orokorrak nahiz espezifikokoak eta horiekin erlazio zuzena izan duten hipotesiak plazaratzen dira. Hortaz, ikerketaren helburu nagusia ondorengoa da: Hezkidetzaren aldeko hautua egin duten Haur Hezkuntzako irakasle talde batek haurren genero identitatearen inguruan duen ikuspegia aztertzea.

Helburu orokorraren harira planteatutako helburu espezifikokoak ondorengoak dira:

1. Haur Hezkuntzako irakasleek haurren genero identitate binariotik haratagoko begiradarik ba ote duten ezagutzea.
2. Haurren genero identitatearen prozesu ebolutiboan, Haur Hezkuntzako irakasleek kanpo faktoreez duten kontzientzia aztertzea.
3. Hurrek garatzen duten genero identitate prozesuan eragin zuzena duen familiaren indarra ezagutzea, Haur Hezkuntzako irakasleen partetik.
4. Haur Hezkuntzako irakasleek, haurren genero identitatearen eraikuntzan curriculum ezkutuak duen eraginaren kontzientziarik ba ote duten ezagutzea eta aldaketarako urratsak gauzatzen dituzten aztertzea.

Aipatutako helburuetan oinarrituta eta esparru teoriko eta kontzeptualetan biltzen joan garen informazioarekin lotuta, honako hipotesi hauek planteatu dira: Haur Hezkuntzako irakasleek haurren genero identitatea femeninoaren edo maskulinoaren kategorietakoa soilik izan daitekeela hautematen dute oraindik, hots, genero identitatearen aniztasunarekiko ikuspegi murrizta nagusitzen dela uste dugu. Halaber, uste da, Haur Hezkuntzako irakasleak kontziente direla, haurren genero identitatearen eraikuntzan eskolak bezainbeste edo gehiago eragiten dutela beste gizarte eragile batzuek; alegia, kontziente direla beren esku ez dauden eragile sozializataileen eraginaz

Honenbestez, ikerketa honen bidez, Haur Hezkuntzako irakasleek haurren genero identitatea binarismoan ulertzen dutela eta kanpo faktoreen gaineko kontzientzia sendoa dutela frogatu nahi da.

## **2. Esparru teorikoa eta kontzeptuala**

Atal honetan egungo egoera nolakoa den eta nondik datorren ezagutzeko eduki kontzeptualak ageri dira. Ikerketaren helburua kontuan izanik, azpimarratzekoak dira bi kontzeptu nagusi: genero identitatea eta irakasleak. Honenbestez, esparru teorikoa argi eta ulerterraza izan dadin, lehenengo atalean sexu genero sistemaz ariko gara, hau da, egungo jendartea nola dagoen antolatua eta nola ulertzen den genero identitatearen begiradatik. Bigarren atalean, genero identitatea eraikitzeke eta gizarteratzeko unean pertsona ororen bizitzan indarra duten eragileak azalduko dira. Azken atalean, gaur egungo eskola eredura iristeko egin den ibilbidea eta egungo irakasleek genero identitatearen begiradatik dituzten erronkak azaltzen dira.

### **2.1 Sexu-genero sistema: genero rolak eta estereotipoak**

Urte luzez sexua eta generoa kontzeptu gisan elkarren sinonimo edota nahastuta ulertu dira gizartean, eta oraindik ere, hainbat ikuspuntu eta iritzi ezberdin daude bi kontzeptu hauen artean. Honenbestez, genero identitatea ongi ulertu dadin, lehendabizi sexuaren eta generoaren arteko bereizketa egin da (Maccoby, 1999).

Sexua, nagusiki, sistema binariotik abiatzen den egungo gizarteko adibideetako bat da, hau da, bi sexu bereizten dira zientifikoki, eta hori emakume edo gizon izatean datza. Beste era batera esanda, jaiotzez amaren sabelean garatzen diren ezberdintasun fisiologikoekin, organoekin, hormonekin zein gorputz egiturekin du zerikusia. Honela, jaio aurretik emakume izendatu dutena pixkanaka bere bizitzan bere sexuari dagozkion esperientziak bereganatzen joaten da (Berger, 2007).

Hortaz, generoa goian aipatutako sexuen arteko ezberdintasunen ondorioz sortu diren eta pertsonok ikasten ditugun egitura eta ekintzek definitzen dute, hala nola, ezaugarri psikologikoen, rolen edota jarrerak. Hauek, bereziki, lurralde bakoitzeko kulturarekin zerikusi zuzena dutela aztertu dute zenbait adituk (Maccoby, 1988; Powlishta, 2004). Zonalde bakoitzean, femeninotasunari nahiz maskulinotasunari esleitzen zaizkion arauak, ohiturek, pentsamoldeek, jokabideek nahiz itxaropenek osatzen eta erreproduzitzen dute; beraz, generoa, kultura arauen barnean eraikitako etiketa sozial bat da. Ibilbide horretan, ordea, historikoki ohikoena sexuaren arabera generoarekin identifikatzea izan da. Hau dela eta, kanpoan gelditu dira eta oraindik gelditzen dira, beren burua sistema binario horrekin identifikatu ez dutenak (Sánchez, Moreira eta Mirón, 2011).

Honekin jarraituz, Reizabalek (2015) zehazten duen eran, urte luzez gizartean sozialki eraikitako rolen arabera, identitate maskulino eta femeninoaren arteko ezaugarrien sailkapena jarraitu da. Autoreak eginiko taulan ageri dira estereotipo bakoitzari esleitzen zaizkionak:

|                              | <b>Nortasun-ezaugarriak</b> | <b>Rolak</b>               | <b>Ezaugarri fisikoak</b> | <b>Gaitasun kognitiboak</b> |
|------------------------------|-----------------------------|----------------------------|---------------------------|-----------------------------|
| <b>Estereotipo femeninoa</b> | Ahula                       | Arropaz/etxeaz arduratzea  | Ahots suabea              | Adierazpena                 |
|                              | Beldurtia                   | Emozio sostenguaren iturri | Barregarria               | Artistikotasuna             |
|                              | Besteekiko dedikazioa       | Erosketa egitea            | Dotorezia                 | Ezagutza urrikoa            |
|                              | Emozionalki ezegonkorra     | Modaz interesatzea         | Edertasuna                | Hautemate-gaitasuna         |
|                              | Koherentziarik gabekoa      | Sukaldaria                 | Ikusgarria                | Hitzezko gaitasunak         |
|                              | Lan-anbizio gutxikoa        | Txutxu-mutxu zalea         | Polita                    | Intuizioa                   |
|                              | Hunkibera                   | Umeez/zaharrez arduratzea  | Sexya                     | Irrazionaltasuna            |
|                              | Kaskarina                   |                            | Txikia                    | Irudimena                   |
|                              | Pasiboa                     |                            |                           | Sortzailetasuna             |
|                              | Menpekoa                    |                            |                           | Ukimena                     |

|                               |   |  |  |  |
|-------------------------------|---|--|--|--|
|                               | Ondo hezia<br>Ulerkorra<br>Xamurra  |  |  |  |
| <b>Estereotipo maskulinoa</b> | Aktiboa<br>Arrazionala<br>Ausarta<br>Dinamikoa<br>Eraginkorra<br>Independentea<br>Emozionalki egonkorra<br>Lehiakorra<br>Ni sendoa<br>Oldarkorra<br>Psikologikoki indartsua | Brikolajea<br>Diru-hornitzailea<br>Familia-burua<br>Kirolzalea<br>Kontrol ekonomikoa<br>Liderra<br>Sexu-iniziatiba | Atletikoa<br>Beltzarana<br>Bizkar zabala<br>Garaia<br>Gogorra<br>Gorputz handikoa<br>Indar eta kemen fisikoa<br>Muskularra | Analitikoa<br>Arazoak bideratzeko gaitasuna<br>Arrazoibide matematikoa<br>Gaitasun kuantitatiboak<br>Pentsaera abstraktua<br>Zehatza<br>Zenbaki/zientzia gaitasuna |

1.Taula: gizarteak transmititzen dituen genero estereotipatuak (Reizabal, 2015)

Behin sexu eta genero hitzak bereizita, nahiz rolak eta estereotipoak izendatuta, aipatzekoa da, historikoki, 80ko hamarkada aldera arte, genero identitatea rol sexualen teorian oinarritu zela; teoria horren arabera, pertsona bakoitzak sortzen duen rola sexuaren araberakoa da. Teoria hau izan da garrantzitsuena bai psikologia nahiz soziologia esparruetan urte luzez. Gerora, ordea, esparru psikologikotik genero identitatea ikaskuntza sozialean oinarritutako teoriaren begiradatik aztertzen hasi ziren perspektiba kognitibistarekin batera. Honen bidez, haurrengan hainbat jarduerak eta ekintzak izan zitzaizketen ondorio negatibo nahiz positiboak aztertzeari ekin zioten eta, honela, imitaziozko eta onarpen bidezko sistemak zekartzan baldintzak aztertzen hasi ziren hainbat autore (Davies, 1994; Renold, 2001 eta Skelton, 2001).



Antzeko begiradatik segitu zuen Rotterrek *Social Learning and Clinical Psychology* (1954) teoriarekin. Gerora, Bandurak eta Waltersek (1977) Rotteren ideia garatu zuten Millerrek eta Dollardek 1941ean egina zuten lanarekin uztartuz. Horrela, eratzen den teoria berriak elkarrekintza eta pertsonen harremanen inguruan ikertzeko bideak ireki zituen eta horrek genero identitatea eraikitzeke orduan hurrek aurrez ikusi eta barneratu dituzten eskemak erreproduzitzeko joera jartzen du erdigunean (Blanco, 2001).

Goian azaldutako rol sexualen teoria eta ikaskuntza sozialaren teoria kontuan izanik, historikoki emakumeek eta gizonezkoek sortu eta erreproduzitu dituzten bizi baldintzak eta eguneroko ekintzak, oso ezberdinak izan dira, honenbestez, urteetan zehar, bizitza osoan ikasitako hainbat jarduera errepikatu dira generazio batetik bestera (Reizabal, 2015).

González et al.-ek, (2002) zehazten duten modura, bi izateko bide edo genero identitate sortu dira, hainbat gai eta elementu ezberdinetan; batetik femeninoa eta bestetik maskulinoa. Antolakuntza binarioan oinarritutako aukera bakoitza emakume nahiz gizon, pertsona bakoitzak gizarteko arauak onartu eta urte luzez erreproduzitu eta ikasi diren jarrera horiekin bizitzeko helburuarekin.

Bi bide nagusi horietan bi puntu garrantzitsu bereizten dira: batetik, norberak bere sexuaren arabera erabakitzen duen edo erabakiarazten zaion bidea, hau da, jaiotzez sexu femeninoa dutenek emakume izateko bidea egitea; eta, beraz, emakumeekin identifikatutako aspektuak bereganatzeko joera edota beharra izatea, arestian azaldutako teoria sozialekin erlazionatuta. Eta, bestetik, sozialki maskulinoaren gailentzea eta prestigioa, femeninoa alboratuta. Hala nola, gizonezkoek jendartean aritzeko aukerak bideratu zaizkie, esparru publikoak edota lan aukerak; aldiz, emakumeek urte luzez egokitu zaizkien esparruek etxearekin eta pribatuarekin dute zerikusia. Gizarteko boterearen esparrua maskulinoaren esku geratuz horrela, baita aitortza eta adierazpen orokorra ere (González et al., 2002).

## 2.2 Gizarteratze eragileak

Hainbat autorek, urte luzez, gizarteratzea jarrerak, rolak, arauak, baloreak nahiz sinesmenak barneratzeaz arduratzen den prozesu indibidual gisa definitu izan dute. Hala ere, egun, bilakaera horretan kontuan hartzen dira norbanakoaren inguruko egoera sozio-historikoa eta bertako gertaeretan efektua sorrarazten duten zenbait eragile, hala nola, komunikabideak, familia edota hezkuntza arloko esparru ezberdinak beste askoren artean (Arnett, 1995; Pérez, 2007).

Jakina da, beraz, haurren gizarteratzean eta, prozesu horretan, genero identitatearen eraikuntzan, badirela haurrak inguruan dituen hainbat eragile, zenbait efektu eragiten dituztenak. Elementu horiek norbanakoak ala instituzioak izan ohi dira; halaber, gizarteak bereganatu dituen arau inplizitu bezain sozialak eta autorregulaziorako normak nahiz jarrerak barneratzeaz arduratzen dira. Honela, prozesu honen bitartez, testuinguru zehatz bateko ezaugarri soziokulturalak ikasten ditu norbanakoak (Rocher, 1990). Ondorengo lerroetan, haurren bizitzako lehen faseetan zentratuz, eragin bereziki handia duten hiru esparru landuko dira: familia, komunikabideak eta eskola.

### 2.2.1. Familia

Haurren bizitzako lehen urteetan, hainbat autorek dioen bezala, familia izan ohi da lehen erreferente nagusia haurrentzat beren garapen emozional, afektibo, sozial nahiz pertsonalari erreparatuta. Izan ere, eragile honek, haurrari bere gizarteratze eta bereziki eskolaratzeko prozesuko unean, hainbat seinale ezagutarazten dizkio, hala nola, balorazioa, onarpena, arrakasta, porrota eta abar (Camarero, Manzano eta Rovira 2004; Espinar 2009; Requejo, 1990).

Bide beretik jarraituz, Espinarren hitzak (2009) gogora ekarrita, haurren ikasteko tresna nagusia imitazioa izan ohi da. Hau dela eta, haurrek txikitatik etxean ikusi eta etengabe erreproduzitzen diren jarrera, portaera edo erlazio egiturak behatzen eta bereganatzen dituzte. Esate baterako, etxeko lanen banaketa edo erabakien ardura. Bi hitzetan esateko, helduak nola erlazionatzen diren euren artean, hots, nolakoa den sortutako botere harremana.

Horrez gain, gehitu nahi genuke hemen, haurraren lehenengo urteetan eskolaren eragina ere ikaragarria dela, jakinik, familia dela haurraren lehendabiziko erreferentzia taldea. Hortaz, onuragarria izan ohi da familiaren eta eskolaren balore eta oinarriak bateratuak izatea haurraren estantzia eta erritmo orekatu baterako (Palacios eta Moreno, 1994).

### 2.2.2. Ikus-entzunezko komunikabideak

Reizabalek (2015) zehaztu bezala, gizarteak eraikitako rol femeninoen eta maskulinoen kontzientzia duenak ere, eta horiek sahiesten saiatzen denak ere, komunikabideek, zineak, publizitateak eta abarrek helarazten dituzten jokamoldeak barneratzen ditu inkontzienteki. Ikus-entzunezko komunikabideen eraginari buruzko ikerketak sarritan bat ez badatoz ere, Espinarrekin (2009) bat eginda, esan nahi genuke, pertsonen gizarteratzeko prozesuan ikaragarritzko eragina dutela. Autoreak argi zehazten duen modura, hedabide hauek testuinguru eta egoera baten parte dira eta, ezinbestekoa da gainerako eragileekin batera taldean ulertzea.

Hala ere, nabarmentzekoa da, esate baterako, marrazki bizidunetan erreproduzitzen diren harremanek edo emakumeari eskaintzen zaizkion espazio publikoetarako lekuek goian aipatutako bi rol horietara daramatzatela kontsumitzaileak (Martòri, 1994). Hori horrela izanik, txikienek gizarte antolaketa ereduaren berri izaten dute hedabide hauen bitartez. Genero identitatearen eraketa horretan, testuinguru zehatz baten baitan, norberaren esku ez dauden hainbat ñabardura sorrarazten dituzte hedabideek; lehen aipatu bezala imitazio bidezko ikaskuntza txikienetan nagusia izanik (Beltrán, 2015).

### 2.2.3. Eskola

Goian aipatu bezala, familiarekin batera, haurren gizarteratze prozesuan garrantzi handia du eskolak. Hau baita antolatutako lehen harremanak bistaratzen diren lekua (Molpeceres, Llinares eta Bernad, 1999). Honenbestez, instituzio honek hurrei harreman sozialen inguruko lehen printzipioak azaleratzen dizkie, norberaren jarrera eta instituzio ezberdinen arteko antolaketa ezagutaraziz aldi berean (Garreta, 2006).

Eskolan gainerako kideekin egiten da topo eta, bide honetan, jakintza nahiz ikaskuntzak elkar trukatzeko dira. Bertarazten diren zenbait pertsonen artean, gaitasun eta konpetentzia kognitiboak, sozio afektiboak, komunikatzaileak eta abar indibidualki nahiz kolektiboki garatuz. Hortaz, eskola da elkartruke horiek bermatzeko dituen tokia. Kontuan izanik, gizarteratzea norbanakoaren identitate indibiduala eta antolaketa soziala eratzean datzala, eskolak pertsona guztientzako toki segurua, integratzailea eta motibatzailea izan behar du (Molpeceres, Llinares & Bernad, 1999).

Ikerketa honen ikergaia Haur Hezkuntzako irakasle talde batek hauren genero identitatearen inguruan darabilen ikuspegiaren berri izatea denez, eta eskola guzti honen erdigunean dagoenez, hurrengo atalean eskola eragile eta instituzio modura sakonago azaltzen da, genero identitatea oinarritzat hartuta urte urte egon diren eta dauden aldaketak luze eta zabal azalduz.

## 2.3 Eskola hezkidetzalea genero identitate askea eraikitzeko lekua

### 2.3.1. Bilakaera historikoa

Historiari erreparatuta, emakumeen eta gizonen arteko bereizketa oso agerikoa izan da gizartean, eta horren adibide da hezkuntza alorak jasan duen bilakaera. Ikusiko dugunez, prozesu luzea izan da; urrats txikien ondorioz eta momentuko beharretan oinarrituz gauzatu dira aldaketak. Segidan azalduko dugun eran, gizartean urte luzez egon den antolaketa, eskolan diharduten pertsonengan eragin zuzen zuzena izan du. Bide honetan hiru eskola eredu izan dira nagusi: segregatzailea, mistoa eta hezkidetzalea. Azken hori gaur egun oraindik garatzen eta aldaketak egiten dirauena.

Bistakoa da eskola segregatzailetik hasita, Subiratsek eta Brulletek (2002) zehazten duten modura, historikoki landu eta goraiatu den hezkuntza gizonezkoena izan dela. Horrela, emakumeen hezkuntza eskubidea urte luzez urratua izan da. Hala eta guztiz ere, aipatzekoa da Moyano Hezkuntza Legea (1857) indarrean jarri zenean, emakumezkoen hezkuntza eskubidea bermatu eta pixkanaka aldaketak gauzatzen hasteko bidea ireki zela. Esate baterako, emakumeen hezkuntza ofiziala derrigorrezkoa bilakatu eta, lehen aldiz,

Hezkuntza Sailaren barnean sartu zen. Ordura arte emakumeek hezkuntza arloan ez baitzeukaten lekurik, gizartearentzat ikusezinak ziren alor honetan. Hau horrela izanik, jakina da, eskola segregatzailean gizon eta emakumeek eremu fisiko eta curriculum ezberdinak zituztela. Honenbestez, ikasten eta lantzen zituzten gaiak gizarteko antolaketa bereizi horri eta goian aipatu ditugun rolei (Reizabal, 2015) oso lotuak zeuden; hau da, mutilak eremu publikorantz bideratzen ziren, jendartera nolabait esate arren, eta neskek, berriz, pribaturantz, etxeko eginkizunetara.

Aro horretan, 1936ko gerra zibila hasi aurreko urteetan, lekuko egoera politikoak, lurraldean izan zuen eraginaren ondorioz, hezkuntza elizaren esku geratu zen, eta honek parte handi batean egindako zenbait aurrerapauso atzera bota zituen. Dena dela, garai horien bueltan eta bereziki II. Errepublika garaian (1931-1939), eskola mistoak sortu ziren; hori izan zen parekidetasunaren biderantz gauzatu zen lehendabiziko urratsa. Aro honetan hezkuntza pedagogikoki ere hausnarketara eta aldaketetara bideratzen hasia zen. Honela, lehen aldiz hezkidetzak kontzeptua eta ikasleen garapen integrala mahai gainean jarri ziren, nahiz eta, garai hartako hezkidetzak kontzeptuak eskola mistoari egiten dion erreferentzia eta ez egungoari. Honela, neskek eta mutilek ikasketak berdinez gauzatzeko lehendabiziko urratsak egin ziren. Berebiziko bultzada eman zion emakumeek hezkuntza arautuan integratzeko bide honi, 1970. urteko Ley General de Educación izenez ezaguna den legeak. Goian aipatutako hezkuntza lege honek aldaketak eragin zituen; hala nola, neska eta mutilentzako curriculum berdina finkatzea, espazio berdinez elkar banatzea eta joko berdinez garatzea, beste batzuen artean (Tomé, 2002).

Honenbestez, gerora, 90eko hamarkadan gutxi gorabehera, ikusi zen gela berean nahasita ikastearekin ez zela nahikoa gizarte parekide bat eraikitzeko. Izan ere, ez zen neskeganako diskriminazio posiblerik aurreikusi eta, gainera, ez zen kontuan hartu ikasgaietan gela berean egonagatik ere, transmititzen zen androzentrismoa. Esate baterako, hizkuntza gaztelania izanik, maskulinoa erabiltzea neutro gisan, edota liburuetan maiztasun handiagoz, autore gizonetakoak agertzea (Salas, 1994). Hurrengo atalean sakonduko dugu eskola hezkidetzazalearen sorreraren inguruko gai honetan.

### 2.3.2. Eskola hezkidetzailerako bidean lehen urratsak

Goian azaldu bezala, bi sexu ezberdineko pertsonak gela berean sartzea ez da hezkidetzatza, are gutxiago, eredu maskulinoa neutro bihurtu eta bietarako erabiltzea, bi eredu horiek bateratuz eta bata bestearekiko gailenduz. Hezkidetzatza, beraz, ez da gizon eta emakumeen pentsaerak uztartzea; baizik eta ezberdina dena errespetatu eta hori erakustea, aniztasun honek eskaintzen duen aberastasuna gozatuz (Moreno, 1993).

Hezkidetzatza 90eko hamarkadan sortu zen mugimendua izan zen. Bistakoa zen eskola mistoen sorrerak aurrerapauso handiak eragin zituela parekidetasunerako bidean baina, hala ere, oraindik helburutako bat burutzeko zegoen. Hain zuzen ere, neska eta mutilen arteko aukera berdintasuna (Tomé, 2002).

Honenbestez, hezkuntzako ikasgaiak birplanteatu ziren genero ikuspegitik eta, honela, parekidetasunaren bidean bigarren urrats garrantzitsua egin zen. Hala ere, bistakoa da, hainbat autorerekin bat eginda, oraindik bide luzea dagoela egiteko, eta eskola hezkidetzatzailea erabat zehaztu gabe dagoen hezkuntza sistema dela (Moreno, 2009; Simón 2010).

Bide beretik jarraituz, Salasek (1997) argudiatzen duen modura, neska eta mutilen arteko gaitasunen bereizketa gauzatzen da oraindik inkontzienteki edo kontzienteki; eta ondorioz, hurrengo belaunaldiek eraikitzen duten identitatea ere, oro har, maskulinitate edo feminitate roletan definitzen da, pertsonen garapen osoa kontuan izan gabe. Arestian aipatu dugun bezala, maskulinitatearekin lotzen diren rolek, ausardiarekin, arrazionaltasunarekin nahiz indarrarekin dute zerikusia. Aldiz, feminitatearekin erlazionatzen diren ezaugarriak, beldurra, ahultasuna edota ezegonkortasun emozionala dira.

### 2.3.3. Irakasleen erronka

Azken hamarkadetan irakasleen identitatea ikertzeko grina piztu eta areagotu egin da. Hori dela eta, autore batzuk badira aspektu ezberdinen inguruan gai honi buruz ikertu dutenak. Ikerketa horien harira, azpimarratu da irakasleen jokabideak, oro har, oso lotuta daudela beren identitatearekin eta,

ondorioz, gauzatzen dituzten ekintzek zeresan handia dutela besteekiko harremanetan eta hartu-emanean (Palmer, 1998 eta Monereo eta Pozo, 2011).

Era berean, irakasleak irakasten duenaz gain, nori irakasten ari den ere oso kontuan izan behar du eta, horretarako, lehendabiziko pausua nork bere burua ongi ezagutzean datza; eta hori ekintza oso konplexua da. Palmerrek (1998) ongi zehazten duen modura, norberak bere burua ezagutzen ez badu, albokoak, zehazki, ikasleak zein diren ezagutzeko zailtasunak areagotu egiten dira. Izan ere, irakasleak ikasleak “kristal ilun” baten atzean bezala aurki ditzake, hau da, berak bere buruarekin zalantzak baditu besteengana hurbiltzeko garaian eta besteekin hartu-emanen aritzeko momentuan, hala agertuko da. Honenbestez, irakaspen esanguratsuak egitea oso zaila gerta daiteke, elkarren artean ikasten ari diren norbanakoen harremanak, sarri, baldintzatu egiten baitu irakaskuntza.

Kontuan izanik, identitatearen eraketa prozesua buka ezina dela eta, bizitza osoan zehar garatzen eta aldatzen doan elementua izanik, identitatea beti eratzen da esperientzia pertsonalen bitartez eta inguruarekiko norbanako horiek dituzten harreman sozialen bitartez. Honenbestez, irakasle bakoitzak duen genero identitatearen inguruko ikuspegia oso anitza eta, era beran aldakorra dela diote zenbait adituk (Burns eta Bell, 2011).

Irakaslea, beraz, aurrez aipatu dugun modura, haurren gizarteratze eta garapeneko prozesuetan oso esanguratsua den pertsona eredugarria da. Hau horrela izanik, jakina da, irakasleak duen genero identitateak eta honen gaineko kontzientziak haurrei zuzen zuzenean eragiten diela. Izan ere, eskolaren baitan gela barruan, arestian azaldutako familia gizarte eragilearekin batera, irakaslea haurren imitaziorako eredu nagusia da; hortaz, irakasleen artean dauden harremanak nahiz hauen bidez sortutako egoera ezberdinak edo lanen banaketak, haurren imitaziorako oso tentagarri dira, ikusiz eta ikasiz euren identitate generoa eratzeko (Palmer, 1998).

### 3. Metodologia

Ikerketa hau burutzeko, metodologia kualitatiboa erabili dugu. Jakina da errealitatea ez dela beti objektiboa eta, honenbestez, interpretatzeko tartea ere badagoela. Ikerketa mota hauen helburua, errealitatea ulertzea da, hau da, batez ere hezkuntza alorrean, norbanako bakoitzak bere ideia eta pentsamenduen arabera norberak bere ekarpenak izan eta egitea, kuantitatiboki neurtu ezin direnean. Beraz, metodo kualitatiboak erabiltzen dira gehienez, metodo kuantitatibo bidez informazioa eskuratzea zaila ala ezinezkoa gerta daitekeenean (Caro, Valverde eta Gonzalez, 2015).

Aipatu bezala, diseinu ezberdinak dauden arren, erabili duguna etnografikoa da, gizarteko eragile ezberdinen erlazio nahiz harremanak ulertzen, deskribatzen eta interpretatzen ahalegindu baikara; hortaz, gaiaren inguruko talde baten iritzia eta ikuspegia aztertzeko erabili dugun teknika nagusia, sakoneko elkarrizketena izan da (Caro, Valverde eta Gonzalez, 2015).

Ikerketa kualitatiboen fidagarritasunak eztabaida bat baino gehiago sortu duen arren, azpimarratu nahi genuke, Cortésen hitzak (1997) gure eginez, helburua ez dela existitzen den errealitatea ezagutzea baizik eta norbanakoak bizi duen errealitatea ezagutzea, finean hori existitzen dena izanik. Beraz, kontziente gara, gure egiteak eragin dezakeela eta, honenbestez, hurrengo lerroetan jardunean hartu ditugun erabaki ezberdinen arrazoiak eta argudioak plazaratzen dira.

#### 3.1 Azterketa eremua

Lanaren garapena zehazten hasteko, ikerketa burutu den eremuaren xehetasunak ematen dira. Haur Hezkuntzako graduako 4.mailako praktikaldia burutu dugun ikastetxea baliatuz, kostaldeko herri euskaldun bateko eskola publikoan jarduten duten irakasleen partaidetzarekin burutu da azterketa.

Udalerrri hau Gipuzkoako Urola kostea eskualdekoa da eta bertako ekonomia jarduera nagusienak turismoa eta merkataritza dira, industria gune



txiki bat duen arren. Eustat-en azken datuen (2019) arabera, 23.301 biztanle ditu eta horietatik %74,24 euskalduna da, %8,3 atzerrian jaioa da.

Ikastetxeei dagokionez, herrian eskola publikoaz gain beste hiru eskola daude, kontzertatu bat eta bi pribatu. Aztertu dugun eskola publiko honen kasuan, Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako etapak eskaintzen ditu bi eraikin ezberdinetan. Esanguratsua da eskolak erabiltzen duen metodologia ikas komunitatean oinarritzen dela eta, honenbestez, gauzatzen diren jarduera eta proposamen ezberdinak printzipio horien oinarrian burutzen direla.

### 3.2 Parte hartzaileak

Behin gure ikerketa eremua zehaztu eta azaldu ondoren, jarraian, ikerketan parte hartu duten irakasleen beharrezko xehetasunak azaltzen dira. Kanpo sinesgarritasuna eta eraginkortasuna bermatzeko asmoz, azpimarratzekoa da, elkarrizketatuen xehetasunak ahalik eta zehatzenak eta bereizgarrienak izatea ezinbestekoa izan dela; hauen ekarpenak talde homogeneo bezala ulertu ez daitezzen eta, bestalde, lehen azaldu bezala, ikerlariaren parte-hartze maila, aurrez hausnartua eta neurtua izan dadin (Martínez, 2006).

Ikerketako parte-hartzaileen ezaugarriak aipatu aurretik, ordea, nabarmentzekoa da, parte-hartzaileen lagina, irizpide hauen arabera hartu dela kontuan: genero identitatea, adina, irakaskuntzan izan duen esperientzia, eskolan jarraian daramatzan urteak, jaiotze lekua, bizilekua eta harremanak.

Aipatzekoa da, hasierako asmoa genero identitatearen aldetik emakumeen nahiz gizonezkoen parte-hartzearekin ikerketa burutzea zela baina, azkenean, elkarrizketatu ditugun bost irakasleak emakumeak dira. Era berean, adinez gazteagoa den bakarren bat elkarrizketatzea ere aberasgarria litzateke, irakasle formakuntza berriki bukatua izan dezakeelako eta, ikuspegi aldetik, gizartea eboluzionatu ahala, aldaketaren bat hautematea posible izango litzatekeelako. Baina, jakina da, gradu formakuntza bukatu berri duten irakasle gehienak ordezkapenak egiten dabilzala eta, aipatutako eskolan Haur Hezkuntzako etapan ordezkapenak egiten ari zen irakaslerik ez zegoen.

Jarraian, ikerketan parte hartu duten elkarrizketatuen xehetasunak ematen ahalegindu gara, betiere, norberaren anonimotasuna mantenduz.

| ELKARRIZKETATUAK                   | 1                   | 2                   | 3               | 4                   | 5                        |
|------------------------------------|---------------------|---------------------|-----------------|---------------------|--------------------------|
| Genero identitatea                 | E                   | E                   | E               | E                   | E                        |
| Adina                              | 34                  | 55                  | 51              | 48                  | 42                       |
| Lanbidea                           | HH irakaslea        | HH-LH irakaslea     | HH-LH irakaslea | HH irakaslea        | HH.LH bereziko irakaslea |
| Lanbidean daramatzen urteak        | 1                   | 33                  | 21              | 25                  | 13                       |
| Eskolan jarraian daramatzen urteak | 1                   | 13                  | 12              | 10                  | 3                        |
| Jaiotze lekua                      | Urola Kosta         | Lea Artibai         | Donostia aldea  | Urola Kosta         | Urola Kosta              |
| Bizilekua                          | Urola Kosta         | Urola Kosta         | Donostia aldea  | Urola Kosta         | Urola Kosta              |
| Bikote harremana                   | Hetero sexuala *Ama | Hetero sexuala *Ama | Ez du           | Hetero sexuala *Ama | Homo sexuala *Ama        |

2.Taula: parte-hartzaileen datuak

### 3.3 Informazioa jasotzeko teknikak eta tresnak

Behin ikerketan oso baliotsuak izan diren bost elkarrizketatuen xehetasun nagusiak aipatu ondoren, ikerketa aurrera eramateko erabili den teknikaz eta tresnaz arituko gara. Sakoneko bost elkarrizketa fokatu eta ez zuzendu (transkripzioetarako ikus. 2, 3, 4, 5 eta 6.eranskinak) burutu dira. Sakoneko elkarrizketak, Juaristik (2003) zehazten duen eran, gai konkretu baten inguruan informazioa lortzeko helburuarekin elkarrizketatu eta elkarrizketatzaile baten artean burutzen diren hizketaldiak dira. Bi pertsonen artean soilik egiten dira elkarrizketatuaren lasaitasun, gertutasun eta anonimotasuna bermatzeko xedez.

Era berean, metodo hau eraginkorra izan dadin, bi partaide hauen artean konfiantzazko testuinguru bat sortzea oso beharrezkoa izaten da, batez ere, elkarrizketatuaren motibazioa eta lasaitasuna mantentzeko; honek, gaiaren inguruko informazio oso baliagarria izan baitezake (Juaristi, 2003).

Hala ere, konfiantzazko egoera horrek elkarrizketa profesionala ez du oztopatzen, izan ere, horrelakoetan oso garrantzitsua izaten da sentimendu eta ikuspegi pertsonalak neurri batean behintzat albo batera uztea. Autorearen hitzetan, teknika honen abantaila nagusienetarikoa bat, gaiaren inguruan lortzen diren argumentu, arrazoi nahiz zergatiak oso sakonean lortzeko aukera ematen duela da; oso baliagarria izan ohi da gaia, gizartearentzat konplexua izan daitekeenean. Sakoneko elkarrizketa fokatueta gai bakar bat aztertzen da sakonean eta, elkarrizketatuaren ekarpenen arabera bideratzen direnean, ez zuzenduak direla esan ohi da (Juaristi, 2003).

Halaber, azpimarratzekoa da, elkarrizketatzaileak aurrez prestatutako gidoia presente izatea beharrezkoa dela, elkarrizketatuaren ibilbideari jarraiketa, ikerketan garrantzitsua gerta dakioken informazioaz aritzea aiantzi ez dakion (Juaristi, 2003). Aipatzekoa da, elkarrizketa ez zuzenduak izan direnez, elkarrizketatuaren arabera moldatu direla une bakoitzeko hizketaldiak.

Sakoneko elkarrizketa hauen gidoian murgilduz (ikus. 1.eranskina), nabarmentzekoa da, Juaristik (2003) zehazten dituen pausuak jarraitu direla egitura antolatzeke unean. Lehendabizi, aurkezpen modura, ikerketaren arrazoiak eta susmoak azaldu zaizkie elkarrizketatuei eta, jarraian, ikergeia lantzeko urratsak ikuspegi zabalenetik espezifikora zehaztu zaizkie pixkanaka. Beraz, aurrez azaldu bezala, gure ikerketa burutu dugun eskola publikoko Haur Hezkuntzako irakasleek haurren genero identitateaz duten ikuspegia ezagutzeko eta aztertzeke asmoarekin ondorengo gidoia erabili da.

| Gidoiaren kategoriak                   |   |
|--|---|
| 1. Eskolaren jarduna                   | ❖ Proiektuak  |
| 2. Haurren ekintzak                    | ❖ Estereotipo eta rolak<br>❖ Gizarte eragileak                      |
| 3. Genero identitateaz duten ikuspegia | ❖ Bizitutako esperientzia pertsonalak<br>❖ Hobekuntzarako ibilbidea |

3.Taula: geuk egina

### 3.4 Ikerketaren prozedura

Behean agertzen den taulan ikerketa burutzeko erabli dugun denboraren antolaketa orokorra azaltzen da. Nabarmentzekoa da, taulak prozesu orokorraren berri ematen duela nahiz eta lana astez aste pixkanaka burutzen joan garen.

| KRONOGRAMA          | 2019 |    |    | 2020 |    |    |    |    |
|---------------------|------|----|----|------|----|----|----|----|
| Hilabeteak          | 10   | 11 | 12 | 01   | 02 | 03 | 04 | 05 |
| Ikergaia            |      |    |    |      |    |    |    |    |
| 1.Zirriborroa       |      |    |    |      |    |    |    |    |
| Marko teorikoa      |      |    |    |      |    |    |    |    |
| Elkarrizketa Gidoia |      |    |    |      |    |    |    |    |
| Elkarrizketak       |      |    |    |      |    |    |    |    |
| Transkribapenak     |      |    |    |      |    |    |    |    |
| Metodologia         |      |    |    |      |    |    |    |    |
| Lanaren garapena    |      |    |    |      |    |    |    |    |
| Emaitzak            |      |    |    |      |    |    |    |    |
| Ondorioak           |      |    |    |      |    |    |    |    |

|              |  |  |  |  |  |  |  |  |
|--------------|--|--|--|--|--|--|--|--|
| Bibliografia |  |  |  |  |  |  |  |  |
| Eranskinak   |  |  |  |  |  |  |  |  |

4.Taula: ikerketaren kronograma

### 3.5 Datuen azterketa

Sakoneko elkarrizketak burutu ondoren, elkarrizketatu bakoitzarekin izandako hizketaldia transkribatu dugu (ikus 2, 3, 4, 5, 6. eranskinak), eta hainbat kategoriatan sistematizatu dugu elkarrizketetan jasotako informazioa. Kategoria horiek helburu zehatzen arabera izan dira, eta, honenbestez, elkarrizketak burutzeko erabili dugun gidoia oinarrian dago.

Honela, azpi helburuak izendatu diren ordenari segika, xede bakoitzarekin lotura duten ekarpenak antolatu dira elkarrizketatu bakoitzaren esaldien arabera hurrengo atalean.

## 4. Emaitzak eta ondorioak

### 4.1 Emaitzak

Atal honetan sakoneko elkarrizketetatik bildutako emaitza nagusiak azaltzen dira; horretarako, azpi helburuekin lotuta lau kategoriatan antolatu dugu informazioa. Kontuan izanik, lau helburu espezifiko egon direla ikerketan zehar.

#### 4.1.1. Haur Hezkuntzako irakasleek genero identitate anitzez nolako begirada dute?

Bost elkarrizketatuetan ez da berdin hautematen genero identitate aniztasuna. Jakintza eta ezagutza maila ezberdinak agerian geratu dira euren artean. Ulertzeko bi era nagusitu dira: batetik, genero identitatea egitura binarioan ulertzen dutenak eta, bestetik, ez binarioan.

Honela, genero identitatea ikuspegi binariotik ulertzeko joera plazaratu dute hiru parte-hartzailek. Elkarrizketatuetan gazteenak, azpimarratzen du

duela gutxi arte haur txikien identitatea etiketatzeko beharra sentitzen zuela baina egun, zehazteko asmorik plazaratzen ez duen arren, egitura binario horren baitan ulertzen du genero identitatea, beharbada erabateko kontzientziarik gabe.

*“Lehen igual bai ez nunen bereizten neski edo mutile zan barruk eskatze zitela zer da? baino nik uste ya badiela urte batzuk ya berdin ditela”. (1.Elk)*

Bide beretik, adinez nagusiena den elkarrizketatuak eta eskolan urte gehien daramatzanak, genero identitate binariotik kanpora existitzen den aniztasuna, egoera berezi eta ez ohiko moduan hartzen du. Horren adibide da elkarrizketatuak aipatzen duen eran, betiko femenino edo maskulino izate horretatik haratago identifikatzen diren haurrak, ezustekorik gabe hartzen dituela dionean. Era honetara, inkontzienteki egitura binarioa lehenesten duela agerian geratu da.

*Batzuk txiki txikitatikan ekartzen duten zerbait, ez dakizu esaten, (...) jo ba ume hau... Eta urte batzuk pasatzen dianian, ez dezu sorpresaik eramaten LHko jarraibidea egiten zaionean, (...). Agian konkretuki, horreaño jungo dianik edo ez baino esatezu bueno ba beituba, ba ume horrek ez dit sorpresaik eman edo” (2.Elk).*

Egitura binarioaren begiradarekin segiz, laugarren elkarrizketatuak argi utzi du, oraindik eskolako zenbait ekintza burutzeko antolaketa binarioan jartzen dutela fokua, esate baterako, gelak egiteko unean. Parte-hartzaileak palazaratu du erlazioa duten beste zenbait arlotan aldaketak burutu dituzten arren, genero identitatearen egitura binarioa oso barneratuta dutela eta hau lehenesten dutela genero aniztasuna egoera berezi moduan hautemanaz.

*“Bai bai nik uste oso sartuta daukagula, gelak egiteko unean ere, erdiak neskak beste erdiak mutilak (...) guk ere, beste genero identitate horiek orandik ez dauzkagu barneratuta, ez ditugu ulertzen” (4.Elk).*

Era berean, oraindik etiketak jartzen segitzeko ohitura ere aipatu du; familiako nahiz eskolako eragile moduan, genero identitate bakoitza ulertzeko izen bat jarri beharra, norbanakoon lasaitasun eta erosotasunerako, baita bide horretan laguntza eskaintzeko ere.

*“Nola guraso bezala, irakasle bezala ere, jakin beharra daukagun etiketatu behar hori. A ba orduan bidea bilatu behar diogu dena delari, eta denbora kontua ere bada” (4.Elk).*

Bestetik, genero identitatea ez binario moduan hautematen dutela plazaratu dute hirugarren eta bostgarren elkarrizketatuek. Hirugarrenaren kasuan, jasotzen den etengabeko informazio guztiari ematen dio indarra. Bide honetan, haur bakoitzak nahi duena izateko egin behar duen ibilbidea oso garrantzitsua dela iritziz. Guztiok jasotzen baitugu informazioa baina bakoitzak egiten baitu bere ibilbidea.

*“Ez dakit ziur, nik uste det, jasotzen degunaren eragina izugarria dela. Izugarria. Baina gero egia da ere, haur bakoitzak bere prozesua egiten duela; berak erabaki dezan, neska, mutil edo edozer” (3.Elk).*

Azkenik, bostgarren elkarrizketatuak, argi helarazten du genero identitatea oraindik gizartean ere binario moduan ulertzen dela orokorrean eta, honenbestez, haurdunaldiko adibidea haintzat hartuta bi aukeren artean, femeninoa ala maskulinoa, mugatzeko joera oso nagusia dela oraindik. Bide honetan, naturaltasunari egiten dio erreferentzia, elkarrizketan zehar aipatzen duen modura; bere iritziz, egitura ez binarioa ez da soilik mantentzen dugun begiradan oinarritzen baizik eta begirada horretatik abiatuta egiten den interpretazioan eta horren erabileran.

*“Ufff asko. Hor oraindik pisu ikaragarri, ikaragarri, ikaragarria... (...), haurdunaldian ta ere oso tipikoa da “a zer da mutila edo neska, zer espero dezue ba”, bai eta orduan hor oraindikan... (...) naturaltasun batez, (...) horrekin zer irakurketa egiten dan, zein erabilera egiten da, nora eraman nahi dan hori guztia” (5.Elk).*

Laburrean beraz, aipatzekoa da, bost elkarrizketatuetatik hiruk, genero identitatea nagusiki, emakume edo gizon, hau da, antolaketa binario moduan ulertzen duela, nahiz eta, bestelako generoen existentziaren berri izan. Hauek ordea, bigarren planoan gelditzen dira. Halaber, beste bi elkarrizketatuek genero identitate ezberdinak maila berean ulertzen dituztela plazaratu dute, hau da, aniztasunaren aukeran askatasun zabalagoa mantenduz.

#### *4.1.2. Haur Hezkuntzako irakasleek genero identitatearen prozesu ebolutiboan eragina duten kanpo faktoreen inguruan nolako kontzientzia dute?*

Bost elkarrizketetetan kontzientzia maila eta ikuspuntu ezberdinak plazaratu diren arren, guztiek dute kanpoko faktoreek, hala nola,

komunikabideek, familiek, edota eskolaz kanpoko bestelako ekintzek, dendako erosketek edota kaleko gertaerek, haurren duten eraginaren berri.

Atal honetan esanguratsua iruditu zaigu azpimarratzea, laugarren elkarrizketatuak plazaratzen duen eran, jasotzen dugun guztiak eragina duela. Kasu honetan bereziki, eduki teorikoen atalean garatutako ikus-entzunezko komunikabideen indarrak ari da, hurrei telebistak helarazten dizkien ideiak ekartzen ditu gogora, honek plazaratzen dituen harremanak nahiz jarrerak nola islada daitezken haurren egitean (Martòri, 1994).

*“Egia da telebistak ere eragina daukala ez, ze konturatu gabe ere, zuk ikusten dezu telebistan parian zerbait ikusten aidala, eta beno dana ez dezu ikusten beakin ta gero egun batian eseritze zea ta esatezu ostras... ze transmititzen duten marrazki bizidun inuzente batzuk, eta dago oso oso markatuta” (4.Elk).*

Era berean, elkarrizketatuetan zaharrenak kanpo faktoreen baitako kontzientzia zabala plazaratzen du, gelan, patioan, kalean, etxean, dandan, eta beste hainbat lekutan gertatzen diren ekintzak haurren duten eragina bermatuz eta guzti horrekin hurrei helarazten zaien informazioak duen indarra argudiatuz.

*“Nik uste danak dakala eragina, bai etxeko rolak, etxeko istorioak, eskolakuak, kalean hitz egiten dan moduan, parkean umeekin zaudenean aipatzen diren gauzak, bai hor etengabe jasotzen da danian; telebistako istorioak eta programak, etxean dituzten ohiturak...” (2.Elk).*

Bide beretik, elkarrizketatu gazteenetako batek, jasotzen den guztia kutsadura moduan biltzen du eta oso bereizgarria da nola interpretatzen duen haurren berezko izaera. Izan ere, bere hitzak gogora ekarrita, haurrek izatez ezer ez dutela berezkoa argudiatzen du, goian azaldutako gizarteratze eragileetan oinarrituz eta horien eragina zein kontzientzia azpimarratuz, orokorrean kanpo faktoreen inguruan (Pérez, 2007).

*“Ez kutsadura helduena da, baina %99,9999. Ez daukate kutsadurik, kutsadura sortzen degu, helduek, gizarateak, komunikabideak...” (5.Elk).*



#### 4.1.3. Haur Hezkuntzako irakasleek haurren genero identitate prozesuan familiaren eraginari buruz zer pentsatzen dute?

Goiko atalarekin oso lotuta, haurrak jendarteratzeko unean eta bereziki genero identitatea eraikitzerakoan, goian azaldu bezala, indar eta eragin oso handia duen familiaz elkarrizketatuek palazaratu dituzten ideiak azaltzen dira jarraian.

Atal honetan esanguratsua iruditu zaigu bigarren elkarrizketatuaren iritzia. Izan ere, argi uzten du etxekoek duten eragina haurrak hezterako unean lehendabizikoa eta efektiboena dela azpimarratuz. Lehen aipatu bezala haurren lehenengo kontaktu eta harreman horrek, eragina du inkontzienteki ere (Espinar, 2009).

*“Adibidez zuk margoak mahai gainean jartzen dituzu eta arroxa hartuko dute gehienbat neskak, bihotzak eta margotzen hasten dira. (...) Eta hori ez da, gelan ematen zaien gauza bat, hori beraiek berez dakarten, bueno berez etxetik nahi det esan, etxetikan jasotakoa. Bada neska arrosez janzteza bezala eta mutila urdinez, horrelako gauzak beraiek barneratuta dituztela nik uste. (...) Etxetik hartutakoa, ze berez umeak berak naturalki horrelako gauzak ez dauzka” (2.Elk).*

Bide beretik, gazteenetako irakasle batek, familiarekiko dugun fideltasunaren garrantzia nabarmentzen du, kontuan izanik, hau dela goian esan bezala, gizarteratzeko unean lehen eragile nagusia. Era horretan, irakasle paperetik gauzatzen ditugun aldaketek bideak irekitzeko baliogarriak izan behar dutela azpimarratzen du. Modu honetara, oro har, eskola publikoan dagoen kultura aniztasunarekiko errespetua oinarrian jarrita, haurrei etxeko eredu nahiz araez gain existitzen diren bideak ikusaraztean jartzen du fokua.

*“Pisu handia daka ere hemen kultura aniztasun handia dagoenean hori ere igertzen da, (...) gure esku dago, errespetatzea etxeko hori noski, baina ikustaraztia ikasle horrei beste gauza batzuk badaudela. (...) Neretzako pisu gehiena daukana familia da, azkenean, puf danak, guk, ikasliak, danak familin egoerakiko fideltasun bat daukagu, eta hori da naturalki etortzen dan zerbait (...). Eta kasu horretan zenbat eta adin txikiagoekin egin ba eragina beno, errezagoa da, hobia edo txarragoa ez dakit, baina bai errazagoa, batez ere, zenbat eta txikiago, gutxiago kutsatuta daudelako esan dezagun” (5.Elk).*

Hariarekin segiz, ikastetxean urte asko daramatzan irakaslearen iritziz, duela urte batzuetako familiekin konparatuta, egungo familiekin, haurrek

imitaziorako duten joeraren inguruko kontzientzia sendoagoa dute. Baina, gaur egungo bizimodu azkarra eta erritmo horretan segi nahi edo behar horrek, aldaketak egitea oztopatzen die. Honenbestez, familiek gauzatzen dituzten aldaketak eta duten kontzientzia maila ez direla parekatuak argudiatzen du elkarrizketatuak.

*“Eta orduan, sartzan zara inertzia batean non errepikatzen dituzula azkeneko eztaikit zenbat generaziotan errepikatu direnak ez (...). Nik uste det kontzientzia maila gehitzen ari dela, baina honek esan nahi du, ahalegin bat ere egin behar dala horren arabera jokatzeko eta azkenean gaur egun dagoen estresean eta daramagun dinamikan, errezena dala dejarte llevar” (3.Elk).*

#### *4.1.4. Haur Hezkuntzako irakasleek nolako kontzientzia dute hurrek genero identitatea eraikitzean jasotzen duten curriculum ezkutuaren inguruan? Egiten al dituzte aldatzeko urratsak?*

Atal honetan irakasleek curriculum ezkutuaren inguruan duten ezagutza eta kontzientzia aztertu dugu. Behin elkarrizketatuekin egon ondoren eta hauen hizketaldiak aztertu ondoren, aipatzekoa da, bost elkarrizketatuek emaitza hauek plazaratzeko arrazoiak eman dituztela eta, honenbestez, eguneroko jardunean curriculum ezkutuaren kontzientzia badutela eta pixkanaka hori aldatzeko pausuak ematen dituztela agerian geratu da. Hala ere, ikusi da, bidea oso luzea dela eta prozesu hau, ez dela egun batetik bestera burutzen den zerbait. Parte-hartzaile gazteenak dioen eran:

*“Dudikpe iteyela urtero hausnarketa batzuk gai horren inguruan, esan naet presente daon gauze bat da oindikene bidie luze” (1.Elk).*

Era berean, adinez nagusienak diren elkarrizketatuek argitzen duten modura, ibilbide honetan eragin handia du, norberak bizi eta ikasi izan duenak. Bi hauek azpimarratzen dute eduki teorikoen atalean hezkuntzaren bilakaeraz aritu garen moduan, euren garaiko hezkuntza estiloarekin zerikusirik ez duela oraingo hezkuntzak eta, honenbestez, oso barnean dituzten hainbat ohitura aldatu behar izan dituztela.

*“Gu geu ere beste generazio batekoak gera, jada 50 urtetik gorakoak. Eta nik uste, gu ere ari garela ikasten zenbait gauza, eta guk ere askotan konturatu gabe*

*hainbat hanka sartze egingo ditugu (...). Saiatu iten gea eta gero ta gauza gehiago eta ekintza gehiago egiten direla ere bai e, baina hoixe jarraitu in ber deu” (2.Elk).*

*“Guk izan degun heziketaren baitan jokatzan degulako askotan eta hezkidetzarekin ez daukala zerikusirik guk jaso genuenak ez. (...) Teorikoki zerbait esaten ari zara baina gero zure egiteko moduarekin baita kontrakoa igortzen dezu, baina nik uste azken urteetan batez ere kiston ahalegina egiten ari dela hortan” (3.Elk).*

Zenbait elkarrizketetan, hizkuntzaren erabileraren ondorioz hasitako aldaketak aipatu dituzte. Finean, orain arte erabili den eta oraindik erabiltzen dihardugun hizkuntzak ere plazaratzen dituen zenbait ikuspuntu eta begirada aldatzeko helburuarekin egin dituzten aldaketen inguruan galdetzean. Elkarrizketatuetatik harreman heterosexuala duen parte-hartzaileak dioen eran, aldaketa horiek guztiak egiteko unean zeresan handia du norberak egunerokotasunean mantentzen duen begiradak.

*“Eta hori dago noski kontuan hartuta azkenean egunerokotasunean norberak daukan begiradan, eta begirada hori zuzenian sartutakoa da nire ibilbide pertsonalagatik, esperientziengatik... (...) helduen bileretan ere, eta hizkuntzekin hor, “a hombre etorri zea...” eta nola “hombre”? Horrelako zea txikietan, adibidez ni bereziki banaiz zea puntillosa eta horretan jarduten naiz” (5. Elk).*

Bide beretik, gorputz espresioa eta hitzezkoa ez den komunikazioa ere nabarmentzekoa da. Reizabalen (2015) rolen taula gogora ekarrita, egoera baten aurrean plazaratzen diren jarrerak eragina dutela ere jakina da eta horien inguruan aritu da laugarren elkarrizketatua, curriculum ezkutuz galdetzean.

*Suposatzen da baietz, (...) rol asko sartuta dauzkagu eta nahi deu baino azkenian horrela hezi gaituzte gu, (...) eta hori hitzik gabe ere transmititu iten da baino saiatu, saiatzan gea eta askotan ba hori kontziente zean heinean ba hori gauzak aldatzen jute zea” (4.Elk).*

## 4.2 Ondorioak

Ikerketaren azken atal honetan, ondorio nagusiak zein izan diren azalduko da laburrean. Horretarako, ikerketan lortu diren emaitzetatik abiatu eta teorikoki azaldutakoarekin uztartuz, errealitateko egungo egoeraren ispilu izan daitezkeen zenbait kausa plazaratzen dira.

Batetik, lehen hipotesiaren harira, hau da, Haur Hezkuntzako irakasleek haurren genero identitatea, femeninoaren edo maskulinoaren kategorietakoa

soilik izan daitekeela eta, beraz, genero identitatearen aniztasunarekiko ikuspegi murrizta nagusitzen denaren susmoa baieztatzeko tartea izan dugu. Honela, ondorio nagusia da, haurrak genero identitate binarioaren baitan hezteko joera dutela irakasleek oraindik ere. Rotterrek (1954) plazaratutako ideiei jarraiki, haurren imitazioaren bidezgaratzen den egitura sozialekin zerikusia duen aukera gisa ulertzen dute genero identitatea. Halaber, genero identitatearen eraikuntza eredu binarioan oinarritzen dute; hau da, femeninoaren eta maskulinoaren arteko aukeran, erabateko askatasun aukera mugatuz.

Goian azaldutakoari segika ikerketako bigarren hipotesi nagusia bete dela nabarmendu dezakegu, hau da, Haur Hezkuntzako irakasleak kontziente dira eskolaz kanpo beren esku ez dauden eragile sozializatzailen eraginaz. Honenbestez, bigarren ondorio nagusia da, guzti hori kontuan izanik, irakasle taldeak curriculum ezkutuaren eta kanpo faktoreen kontzientzia duela. Hala ere, azpimarratzekoa da beren identitateak hasi eta barru barruraino bereganatuta dituzten zenbait ezaugarri eta jarrerak, sarritan kontzientzia izanagatik ere, jarduteko unean zailtasunak eta oztopoak ezartzen dizkiela; eta, honenbestez, eskolan urrats ezberdinak egiten dituztela indibidualki nahiz taldean, honelako praktikak pixkanaka aldatzen eta hobetzen joan daitezela, kontzientzia barneratzen doazen eran.

Azken ideia honi dagokionez, lehendik ere susmo nagusienetako bat argi geratu da, izan ere, haurren heziketan eragina duen faktore bakarra ez da eskola. Arnett-ek (1995) eta Pérez-ek (2007) azaltzen duten modura, haurren identitate eraketan zerikusi handia du inguruko egoera sozio-historikoak. Irakasle laginak argi plazaratu du ideia honen kontzientzia, izan ere, testuinguru hori eratzen duten parte-hartzaileek, hala nola, familiak, komunikabideak nahiz eskolak, guztiek dute eragina haurren genero identitatearen eraketan.

Beraz, lehenengo ondorioak argitaratzen duen modura, oraindik bide luzea dago heziketa ez sexista orokor batera iristeko eta curriculum ezkutuaren baitan transmititzen diren ideia nahiz jarrerak ezabatzeko (Simón, 2010). Izan ere, bi ondorio nagusiak erlazionatuta, bistakoa da, genero identitatea oraindik

eredu binarioan ulertzen dela eta aurrerapausoak egiteko daudela oraindik. Gainera, hori kontuan hartuta, irakasleek, sarritan, helarazten duten informazioa ere curriculum ezkutuarekin nahiz familia edota ikus-entzunezko komunikabideekin batera, ez da erabat askea.

Eragileen indar horri dagokionez, ikerketa hasi aurreko zuzeneko susmo nagusirik egon ez bada ere, nabarmentzekoa dela iruditzen zaigu, batetik, irakasleek eskolaren baitako eragile modura izaten duten jarrera; eta bestetik, pertsona berek, familiako haurren eragile modura, hau da, ama paperetik, izaten duten jokaera. Oso interesgarria litzateke, etorkizuneko ikerketa posible baterako; hau da, ama diren irakasleen eta ez diren irakasleen arteko ezberdintasunak aztertzea. Beti ere, haurren identitate eraketa eta heziketa prozesuan fokua ipiniz. Nolako eragina du eskolako irakasle paperean, norberaren etxean haur bat izateak?

Ondorioekin amaitze aldera, azalertzekoa da, ikerketaren helburu nagusia bete dela, hau da, hezkidetzaren aldeko hautua egin duten Haur Hezkuntzako irakasleek haurren genero identitatearen inguruan duten ikuspegia aztertu dela, era berean, horretarako erabili den ikerketa prozesua efektiboa eta interesgarria izan dela azpimarra dezakegu. Unerik gogorrena beharbada, sakoneko elkarrizketetako ekarpenak iragaztea eta antolatzea izan da, egilearen parte-hartze eza une oro presente egon zedin eta helburuarekin lotura duten emaitzak argi azaldu zitezten.

Hala ere, esperientzia aberasgarria izan da, honelako ikerketa batean jarraitzeko aproposak diren urratsak ezagutu ditugulako eta, bestetik nola ez, aukeratutako gaiaren inguruko susmo nagusiak argitu diren moduan, bidean zerikusia izan duten gaien inguruko jakin mina eta zalantza gehiago sortu delako; eta horrek, ikertzen jarraitzeko gogoia piztu duelako. Esate baterako, goian aipatutako ama irakasleen ikuspegi hezkidetzaillea, gizonek irakasle gisan duten papera edota, bereziki ikerketa honi jarraiki, magisteritza ikasten ari diren etorkizuneko irakasleek haurren genero identitatearen inguruan duten ikuspegia.

## 5. Erreferentzia bibliografikoak

- Arnett, Jeffrey Jensen (1995). Broad and narrow socialization: The family in the context of a cultural theory. *Journal of Marriage and the Family*, 57(3), 617-628 or.
- Azpiroz, Ainhoa (2005). Hezkidetzeta detaile sutilen indarra. *Hik hasi*, 96, 8-17 or.
- Bandura, Albert & Walters, Richard H. (1977). *Social learning theory* (Vol. 1). Englewood Cliffs, NJ: Prentice-hall.
- Beltrán, Padilla Adela (2015). *Influencia de los medios de comunicación en la socialización infantil. Estereotipos de género y actuación en el aula*. (Gradu Amaierako Lana). Hemendik hartua: [http://tauja.ujaen.es/bitstream/10953.1/2000/1/TFG\\_ADELA\\_BELTRN\\_PADILLA.pdf](http://tauja.ujaen.es/bitstream/10953.1/2000/1/TFG_ADELA_BELTRN_PADILLA.pdf)
- Berger, Stassen Kathleen (2007). *Psicología del Desarrollo. Infancia y adolescencia*. Madril: Ed. Médica Panamericana.
- Blanco, García Nieves (koord.) (2001). *Educación en Femenino y en Masculino*. Madril: Akal.
- Burns, Eila & Bell, Sheena (2011). Narrative construction of professional teacher identity of teachers with dyslexia. *Teaching and Teacher Education*, 27, 952-960 or.
- Camarero, Eceiza Amaia; Manzano, Campos Mirian & Páez, Rovira Darío (koord.) (2004). Socialización, familia y cultura. En Páez, Rovira Darío; Ubillos, Landa Silvia & Mercedes, Zubieta Elena (Eds.), *Psicología social, cultura y educación* (845-890 or.). Madril: Pearson Educación.
- Caro, Valverde María Teresa; González García, María & Valverde González, María Teresa (2015). *Guía de Trabajos de Fin de Grado en Educación*. Madril: Piramide.
- Cortés, Camarillo Graciela (1997). Confiabilidad y validez en estudios cualitativos. *Educación y ciencia*, 1(15), 77-82 or.
- Davies, Browyn (1994). *Sapos y culebras y cuentos feministas: Los niños de preescolar y el género* (Vol. 16). Madril: Cátedra.
- De Pablo, Delgado Irati (2014). Irakasle identitateari hurbilketa bat, behaketa autoetnografikoaren bidez. *Tantak: Euskal Herriko Unibertsitateko Hezkuntza Aldizkaria*, 26(1), 59-60 or.
- Espinar, Ruiz Eva (2009). Infancia y Socialización: Estereotipos de género. *Revista Padres y Maestros/Journal of Parents and Teachers*, (326), 17-21 or.
- Euskal Estadistika Erakundea EUSTAT. Zarautz, apirilaren 8an hemendik, hartua: [https://www.eustat.eus/municipal/datos\\_estadisticos/zarautz\\_c.html](https://www.eustat.eus/municipal/datos_estadisticos/zarautz_c.html)
- Garreta, Bochaca Jordi (2006). *La relación familia-escuela: una cuestión pendiente*. Lleida: Universitat de Lleida y Fundación Santa María.
- González, Rodríguez Ana (koord.); Lomas, García Carlos (koord.); Agirre, Ana; Alario, Teresa; Brullet, Cristina; Carranza, M. Eugenia... Vega, Consuelo (2002). *Mujer*

*y educación: educar para la igualdad, educar desde la diferencia.* Bartzelona: Grao.

- Hik Hasi [online]. Eskola Feminista: Hik Hasi, 2017, 2019ko abenduaren 6an hartua hemendiik: <http://www.hikhasi.eus/Artikuluak/20170301/eskola-feministarantz>
- Juaristi, Larrinaga Patxi (2003). *Gizarte ikerketarako teknikak. Teoria eta adibideak.* Leioa: Euskal Herriko Unibertsitatearen Argitalpen Zerbitzua.
- Legea 14/1970, abuztuaren 4an, *hezkuntza eta honen erreforma finantzaketarako*, (BOE, abuztuak 6an).
- Legea 187/1957, uztailaren 20an, *hezkuntzaren erregulazioarako Moyano*, (BOE, uztailaren 22an).
- Maccoby, Emmons Eleanor (1988). Gender as a social category. *Developmental psychology*, 24(6), 755 or.
- Maccoby, Emmons Eleanor (1999). *The two sexes: Growing up apart, coming together* (Vol. 4). Londres: Harvard University Press.
- Martínez, Miguélez Miguel (2006). Validez y confiabilidad en la metodología cualitativa. *Paradigma*, 27(2), 7-33 or.
- Martòri, Marina Subirats (1994). Conquistar la igualdad: la coeducación hoy. *Revista iberoamericana de educación*, 6(1), 49-78 or.
- Miller, Neal Elgar & Dollard, John (1941). *Social learning and imitation*. Yale University Press.
- Molpeceres, Pastor María Angeles; Llinares, Insa Lucía & Bernad, García Joan Carles (1999). La percepción de las figuras de autoridad formales e informales y la inclinación a la conducta delictiva en la adolescencia: Un análisis preliminar de sus relaciones. *Intervención Psicosocial*, 8, 349-367 or.
- Monereo, Font Carles & Pozo, Municio Juan Ignacio (2011) *La Identidad en Psicología de la Educación: necesidad, utilidad y límites*. Madrid: Narcea.
- Moreno, Marimón Montserrat (1993). *Cómo se enseña a ser niña: el sexismo en la escuela*. Bartzelona: Icaria.
- Moreno, Llaneza Marian (2009). *La Educación en Igualdad en los documentos oficiales del centro*. Hemendik hartua: [https://marianmoreno.com/files/200000163-598b05a8a0/pga\\_genero.pdf](https://marianmoreno.com/files/200000163-598b05a8a0/pga_genero.pdf)
- Palacios, González Jesus & Moreno, Rodríguez María del Carmen (1994). Contexto familiar y desarrollo social. *Contexto y desarrollo social*, 157-188 or.
- Palmer, Parker J. (1998). *The courage to teach. Exploring the inner landscape of a teacher's life*. San Frantzisko: Jossey-Bass.
- Pérez, Rodríguez Antonio (2007). Principales modelos de socialización familiar. *Foro de educación*, 5(9), 91-97 or.
- Powlishta, K. Kimberly (2004). Gender as a social category: Intergroup processes and gender-role development. *Psychology Press*, 103-133 or.

- Reizabal, Arruabarrena Luixa (2015). *Genero-berdintasunean hezteko gida: familia, irakasle eta bestelako hezitzaileentzat*. Bilbao: UEU eta EHU.
- Renold, Emma (2001). Learning the 'hard' way: Boys, hegemonic masculinity and the negotiation of learner identities in the primary school. *British journal of Sociology of Education*, 22(3), 369-385 or.
- Requejo, Ramos Ramón (1990). La familia como agente de socialización política. *Revista Interuniversitaria de formación del profesorado*, (9), 85-99 or.
- Rocher, Guy (1990). *Introducción a la Sociología general*. Bartzelona: Herder.
- Rodriguez, Menéndez María del Carmen & Peña, Calvo José Vicente (2005). Identidad de género y contexto escolar: una revisión de modelos. *Revista Española de Investigaciones Sociológicas (REIS)*, 112(1), 165-174 or.
- Rotter, Julian B (1954). *Social learning and clinical psychology*. New York: University of Michigan, Johnson Reprint Corporation.
- Salas, García Begoña (1994). Orientaciones para la Elaboración del Proyecto Coeducativo de Centro. *Desarrollo integral de la persona*, Bilbao: Maite Canal.
- Salas, García Begoña (1997). Ikastetxearen hezkidetzaren eredua egiteko gida. Emakunde, 2019ko abenduaren 17an hartua, hemendik: [http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub\\_guias/eu\\_emakunde/adjuntos/guia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.eus.pdf.pdf](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/pub_guias/eu_emakunde/adjuntos/guia.04.01.elaboracion.modelo.coeducativo.centro.eus.pdf.pdf)
- Sánchez, Casales Antia; Moreira, Trillo Vanesa & Mirón, Redondo Lourdes (2011). Sexo, género y agresión. Análisis de la relación en una muestra de universitarios. *Boletín de psicología*, 101, 35-50 or.
- Simón, Rodríguez María Elena (2010). *La igualdad también se aprende: cuestión de coeducación*. Madril: Narcea.
- Skelton, Christine (2001). *Schooling the boys* (199-217.or). Buckingham: Open University Press.
- Subirats, Martí Marina & Brullet, Tenas Cristina (2002). *Rosa y azul: transmisión de los géneros en la escuela mixta. Mujer y educación*. Bartzelona: Editorial GRAÓ.
- Tomé, González Amparo (2002). Luces y sombras en el camino hacia una escuela coeducativa. *Mujer y educación*. Bartzelona: GRAÓ.



## 6. ERANSKINAK

### 1. Eranskina: Elkarrizketa sakonen gidoia

#### 1. Eskolaren jarduna

- Haurrak hezkidetzan hezten al dira?
- Paperak dena xurga dezakeela esan ohi da, praktikan zer gertatzen del uste da?

#### ❖ **Proiektuak**

- Zer plangintza ditu eskolak gizarteak eraikitako haurren neska eta mutilen arteko ezberdintasunei aurre egiteko?
- Noiz sortu ziren? data estimatuak
- Orain arte egin denak nola funtzionatu du? (hobetzen doa, ez du aurrerapen gehiegirik izan, berdin darrai),

#### 2. Haurren ekintzak

- Berezko ezberdintasunik existitzen al da?
- Zein dira orokorrean mutilek egiten dituzten ekintzak eta neskek egiten dituztenak?
- Eskolan ikasten al dituzte?
- Feminismo eta matxismoarekin zerikusirik baduela uste duzu?

#### ❖ **Estereotipoak eta gizarte rolak**

- Jarrera eta jokamolde batzuk beha daitezke txiki txikitatik, nolakoak dira?
- Haurrak adinean gora egin ahala gehiago nabarmendu al daitezke horiek?
- Estereotipo horiek eskema bera jarraitzen dute al dute beti?
- "Berezia" izaten al da eskema jarraitzen ez duena?

#### ❖ **Gizarte eragileak**

- Honelako egoeretan nork izan ohi du eragina? Nola?
- Familiaren kontraesanak antzeman al daitezke?
- Zein izan ohi da gaur egun indar berezia duen eragile nagusia?
- Komunikabideen alorra nola ikusten duzu?

#### 3. Genero identitateaz duten ikuspegia

- Zure itxura, jarrera, rolak, estereotipatuak direla uste duzu?

- Kontzienteki edo inkontzienteki erreproduzitzen dituzu, eragina dute?
- Nola ulertzen duzu zuk genero identitate binarioa
- Egungo genero identitate aniztasuna ezagutzen duzu

❖ **Bizitutako esperientzia pertsonalak**

- Arreta deitu dizun egoeraren bat haur batek identitatea eraikitzeke momentuan
- Eragileek eragina izan duten egoera bereziren batean?

❖ **Hobekuntzarako ibilbidea**

- Gizonezko presentzia duen irakasle figuraren gabeziaren inguruan zer esango zenuke eskola honengatik?
- Zuk indibidualki zure jardunean zer hobetuko zenuke alor honetako ekintzetan?
- Eta taldean, bai etapan edo eskola guztian zer dago hobetzeko bereziki genero identitatearen ikuspegitik?
- Gizarteak ba al du hobetzekorik alor honetan?
- Pausoa nork eman du lehenago eskolak ala gizarteak?

## 2. Eranskina: Transkribapena 1

- **(Ikerketaren aurkezpena egin ondoren) Aurrena aurkezpen moduan; izena, adina eta zenbat denbora damakizun irakaskuntzan edo mundu hontan**
- Bale, bai bueno nere izena XXX1 da 34 urte dazket eta aurten 35 ingoitut, haur eskolatan ibili naiz ni oin arte, 0-2 gehien bat ibili naiz ze oin harrapaute dao bi urteko adin hori baino bueno zikloan barrun sartzen da hor, hortaz aurten lehenengo aldiye da eskola marko hontan nabilela lanin.

### 1. Atala: ESKOLAREN JARDUNA

- **Ordun bakizu gutxi gora behera nola historian zehar nola eboluzionatuan eskola, segregatua izatetik mistoa eta mistotik hezkidetzako plan honta. Iruitzezaizu hezkidetzan hortan gaudela, edo biden, ez dakit haur eskoletan ikusi zunakin eta orain hemen ai zeanakin**
- Bai dudikpe, dudikpe iteyela urtero hausnarketa batzuk gai horren inguruan, esan naet presente daon gauze bat da oindikene bidie luze dao zenik neuregandik hasite nik neuk jaso detena nik hori dakit iten.
- **Ikusi dezun hori**
- Bai hortaz gauze asko oandik ez dauzket kosziente ta hortaz jaso detena iten oin beste gauza askotaz kosziente iten aigea ta hor ya norbeak lanketa bat iteu, ba nola bideratze gean bai neska bai mutil edo ze
- **Ordun hor ikusiko litzeke baita genero identitatean aldetik teorikoki edo paperen idazten den dana edo jasaten den dana baina geo praktikoki pertsonalidades aldetik ze gauzatze deun edo ze**
- Karo eske netzako diferenti da gaña, esanaet teoriye bai danak dakigu baino gero eztakigu iten ikasi in behar deu eske ezteulako jaso, hortaz nik ikustet bide luzie daula, bai aurrerapen haundiyek indiola baino oandikan...
- **Ados, bueno plangintzan aldetik jardunak eskola... hori dana proiektuek dauzkanak...**
- Bai hor eztakizkit ze proiektu dauzken eta..

### 2. Atala: HAURREN EKINTZAK

- **Eta iruitze zaizu hurrek badakaela berezko desberdintasun bat? neska edo sexu femenino eta sexu maskulinoan artian?**
- Nik haur eskolan ikusi detenakin, txiki txiki ez nuke esango, ze zuk gaña jartzeyozu, esan naet kolorekin asko jokatze deu ez, ez padeu zantzun bat bilatzen ez dakigu neskie da o mutile dan eta barruk sortze digu ez, zer dan ta zertako jakin ber deun
- **Zergatik zehaztu behar dan, binarismoan...**

- Hori da ze pertsoni da, da zure tratu berdiñe izan behar du. Gero ya allatzea, pixket beayek e garatzen dijuzte ez, hazten dijuzte ta hor igual bai ezberdintasunek pixket ageriago jartzen dienak baina oandike ezteie asko izaten. Nik hemen adibidez ya 2 urteko gelan ya 3 iten hasi die, ba zaintza jolas hortan ez panpiñe hartu... baino oandikene bai neska eta bai mutilek iteue jolas hori, oandiken bado behar hori muimenduako, gero nik uste juteala askoz geyo ze helduok ite deuna imitatze baue umiek hoxe ikuste due.
- **Ordun iruitze zaizu rol hoiek edo ekintza markatu horiek geroa sortze dian edo geroa erakutsi, ikasi, erreproduzitu iten dila..**
- Ekintza ta asko bai, ni barruk geo hori pertsonala izangoa, guk emakumiok reglie dakeu, ta gure hormonak horren arabera muitezaizkiu horren arabera, ze nik hileko fase diferentiak eukitzeit ut umore aldetik, apetito aldetik, gorputzeko, izateko aldetik, usayek, dana, hortaz ilargiyek neska era hortan eragite balimaigu, nik pentsatzet ezberdintasun bat badola, bai emakume eta gizonezkon artian, oin zenbateañokua dan hor ya galdu itenaz, baño bai ezberdintasun bat badola. Gero ya rolak ekintzak ohiturak...
- **Ta uste dezu horrek eragin bat badakala sexu femeninoa edo maskulinoa izateakin edo neska sentitzea edo mutila sentitzeakin**
- U eztakit
- **Neska sentitze horren barrun, dao aukeratako bat izan daiteke sexu femeninoa izatea baño rebaita neskei bideratutako rol guztik bideratuta izatea**
- Baino eztijuzte bat esanaet, jo ez ni neski naz ba sexu femenino dauketelako, bueno ni hola identifikatze naz, baño nere bueno eske ze pitua die femeninok ze ohitura die.. gizartien oñarte hartu dien ohitura batzuk hor nikuste ai dala pixket aldatzen, etxeko eginkizunetatik hasite bezelaxe. Ondik falta da ze burue, oandiken emekumik damaki geyengun, bakarriken praktiken ba lanak eta ya banatzen ai diela, eztala len garai batian emakumiek ittezun eginkizune. Ez ba gaur egun bai emakume bai gizonezko etxetik kanpoa lan ittea ordun ya etxe barrukuere hasia aldatzen; emakumie itotzen aizan, edo itotzen aida hor eztakit oandiken jajaja, prozesu hortan ez?
- **Ados eta adibidez, hola zerbait bereizgarriya hor gertatu zaizuna, aiba atentzioa deitu izuna o, bastante txikikin aitu zea ez baño ba igual hemen ba eztait komentario bat edo, bai umek umekin edo bai irakasle batek indunan arabera edo bitxikerin bat**
- Ez oiñ hola... ez lehen igual bai ez nunen bereizten neski edo mutile zan barruk eskatze zitela zer da? baino nik uste ya badiela urte batzuk ya berdin ditela
- **Hasierako zure egiterako ere bai balitteke, jardute deu askotan bakoitzak bere segurtasuna bilatze deulako eta segurtasun horrek eskatze zizun neska edo sailkapen bat itia bezela ez...**

- Nik etxetik, nei alabak, esateit bueno hiru urte terdi dauzke ta, beak esateu batzutan neski da bestetan mutile da, behin baino geyotan esan dit, ni pitu eztaukaten neski naiz, ta nik aa, bale ta hori behin ta berriz errepikako balitz ya nere segurtasun o konfort hortatiken pixkat zehatzen nau ta ya ez nuke jakingo ze esanberdiyot o ze... nik oangoz aitu itet esan naet, nik berdin berdin maite et, berdin dit hortaz nik hori esateyot baño da komentayo bat beak anaye dake referentzi nagusi bere gauzek, gustatze zayo anayen atzetik ibiltzie, hortaz dana da anayena..
- **Bere referentetako bat daka orduan**
- Eta atte rebai atte re oso refenti potentie dabe orduen horrek badaka eta horrek zehatzen nau. Bitu XXX bitu ze esandiken jajaj bai

### 3.Atala: GENERO IDENTITATEAZ DUTEN IKUSPEGIA

- **Ta gero ya, bueno irakasle identitatean ingurun, bakizu bakoitzak daka bere identitate propiyua eta bere identitacion barrun daude ba mila arlo edo mila bide, genero identitatean aldetik, eskola hontan eztaikit fijatu zean, eskola hontan ez dao gizonezko irudirik, eta gizonezko bakarra konserjea da. Ordun irakasle aldetik iruitze zaizu identitatean inguruko hausnarketa ta hoi dana ite deula gu errefente balimagea, genero identitatean inguruko hausnarketa bat inda dakau, beraiei jarduteko garayen, orokorren hausnarketa hoi indala ematen ai dala, oandik....**
- Batzuk ingo zebeñ baño ze sakontasun mallakin, eske kiston aldie dau, neretzako. Eta nik uste baita emakume geñ momentutiken naturaleziek bere umiek zaintzeko esanaet hor badao, ama izate zean momentun; buff itezu eta em bueno nik negan o nik ikusideten a diferenti sentitze deu. Eztaikit zer dan eo zerrekin baino gure beharrak geyo die umie hazi arte zaintza, babexa, ta animaliyetan e ama da zaintza hori hartzeuna.
- **Lotura afektibo edo...**
- Bai instintuek amai eske dana ateratze zayo... hortaz, guk neskak hori jasotze badeu hori emate deu eztaikit, nahizta gero zuk ez nahi izen ama edo baina urtietako jardun eta ohitura hori iruitze zait soiñin dakarkigula, hortaz ondikene e... Jo gaur XXXk esate zun praktikatakuk, beayek 90tyiken o 4 mutil bakarrik diela gelan, ba beitu hor ya bokaziyu dao jajaja eztaikit... guk hori dakigu iten bezela, eztaikit nola urtietan..
- **Eta adibidez iruitze zaizu genero identitatea zehaztu gabe dakan pertsona bat haurrekin eoteko momentuan gurasokin o eongo litzekela aurreneko...**
- Ez luke eon berko,
- **Gaur egun?**

- Aer gaur egun danetik dago ta kritikie oso bistan, baino nik uste oso positibue izango litzekela ta ume hoyengan oso aberasgarrie, ba beste mila kasu ba aniztasuna bezela
- **Ta iruitze zaizu edo zuk pertsonalki zein da zure puntu flakua edo hasieran esan dezun bezela, bai badakit hausnartuta dakat baño jarduteko garayen, ze esango zenuke hobetzeko dakazula o?**
- Nik? dana. Bai bai ni hortan oso zea naiz, beti ikasiko nuke geyo nere jardune.. ta nei iruitze zait etengabekoa izan behar dula ze gizartie, metodologiyek, bai espaziyuk bai gu ere ba. teknologiyena.. ba dana aldatzen dijua
- **Ta iruitze zaizu alde hortatikan gizartea aldatzen dijuan eran eskola parekide edo maila berdinian dijuala aldatzen o mantxoago, azkarrago...**
- Lentuau, beitu nik esango izut; em bueno gai honen ingurun igual hor pareko, bueno eztaik... beste gauze askotan eskoli askoz geyo kostatze zaio aldaketak eta ematie.
- **Osa gizarteak ematen du eta eskolara dator aldaketa bezela**
- Bai aber gu ni txikiye nintzenin eskola batea jute nitzen ta nere seme alabak eman dittutenin, buneo nere semikin, alabekin ya aldaketie dao, baño nere semi eskolariza genunin berdin berdiñe zan da, nei horrek kiston atzeakua intzin, berdiñe pentxatzenun ezta posible...ta hor ya hasi zan, aer esan naet aldaketan batzuk eongozien baño, bisualki o espaziyok ikuste nittunak berdiñek zien, rutinak antzekuek zien bat kendu bestie jarri... hortaz, ta karo irakaslike asko berdiñek di, baño danok aldatze gean danok guz aurea, baño horretiken mugimendu guztiyek eonberdu aldaketak emateko.
- **Ta ya bukatzeko ezto jarrita baño oan, iruitze zaizu eskola baten fijo eote horrek eragiña dakala aldaketak eotiekin bai o**
- Fijo eotiek?
- **Esan naet nik plaza dakat eta damakizkit hamar hamabost urte hemen eta hola dao "remesa" oso bat o esango deu.. lortu det eta ya yasta, iruitzen zaizu gizarteak eman dittun aldaketa hoyek emateko eskolan horrek eragiña dakala**
- Dudik be, eukiko eztuba, oñ oñarte lortu dana beayei esker e baita, beayen resistzitzu hori ez, beayentzako re gauze berri bat nire hor sartuko niaz, ze aldaketak danoi emateigu halako bertigo bat baño prest eonberdu ze probatu ta ikusi ze horrek emateun, baño bai bai nik uste aldaketan asuntuan hortxe eskolako langile guztiyek badakela eragin odo haundiye.

### 3. Eranskina: Transkribapena 2

- **(lkerketaren aurkezpena egin ondoren) izena adina eta zenbat urte daramatzazun irakaskuntzan gutxi gora behera zehazterik bai...**
- Beno ba, XXX2 nahiz, adina 55 ditut eta hasi nintzen 87an hasi nintzen ordezkapenak egiten Lehen Hezkuntzan 2007ra arte, gero oposaketak HHn gainditu eta praktikaldia hemen egin nun eta orduztik bertan. Plaza lortu artean, deanbulando, ondarrutarra na orduan bizkaian ere ibili nintzen eta gipuzkoan ere nahiko baina beno toki ezberdinetan...

#### 1. Atala: ESKOLAREN JARDUNA

- **Eskolan historikoki segregatua izatetik, mistoa izatera eta hortik hezkidetzara pasa da. Uste dezu, gaur egun gauden pauso horretan aukera berdintasuna edo parekidetasuna ahalbidetzen dela?**
- Hasiera batean, esango nuke, HHn baietz, ez da nabaritzen desberdintasunik, beraiek bai, berezko hori badakarte. Adibidez zuk margoak mahai gainean jartzen dituzu eta arroxa hartuko dute gehienbat neskak, bihotzak eta margotzen hasten dira gehien bat neskak, gero igual mutilak erakarriko dituzte eta bakarren bat hasiko da kolore hori hartzen duna, baina gehienbat hori. Eta hori ez da, gelan ematen zaien gauza bat, hori beraiek berez dakarten, bueno berez etxetik nahi det esan, etxetikan jasotakoa. Bada neska arrosez janztea bezala eta mutila urdinez, horrelako gauzak beraiek barneratuta dituztela nik uste. Ze nik ez dakit, guraso batzuk ere zenbateraino "cara a la galeria" ematen du baietz baino gero komentario batzuk bileretan eta entzuten dituzu um.. ostras! pixka bat sorpresakin. Egiten dituztela horrelako komentarioak eta batzutan eta nik uste beraiek ere, berez esan nahi hoixe, etxetik hartutakoa, ze berez umeak berak naturalki horrelako gauzak ez dauzka. Berdin izaten zaie neskekin jolastu mutilekin jolastu...
- **Pertsona bere osotasunean...**
- Bai hori da!
- **Paperean, beno denok hezkidetzan bizi gea, ta hori dena, baina gero eguneroko jardunetan eskolak beak iruditzen zaizu badituela, ez irakasle konkretu bat dagolako edo badaudelako baina negatiboki eragina duten faktoreak?**
- Nik ez dakit. Gu geu ere beste generazio batekoak gera, jada 50 urtetik gorakoak. Eta nik uste, gu ere ari garela ikasten zenbait gauza, eta guk ere askotan konturatu gabe hainbat hanka sartze egingo ditugu eta horretan saiatzen zara, hainbeste ikastaro eta hezkidetzatza batzordeekin kontaktua mantentzen, eta saiatzen zea horiekin kontzientzia lortzen baina, ai! egindakoan egin dezu eta saiatze zea horri buelta ematen hala nola, baina bestela nahi det esan, danok ikasten ari gean gauza bat da eta jarraitu behar deu horrela. Saiatu iten gea eta gero ta gauza gehiago eta ekintza gehiago egiten direla ere bai e, baina hoixe jarraitu in ber deu..

- **Badela prozesu bat...**
- Bai bai! Hori guk ere hor dakau, hori ere barneratuta dakau, Esan dezuna bestela, eskola mistoa edo hori ere, ni neu ere monjetan ikasitako naiz eta mutilekin harremantzen ere institutuan hasi ginen orduan, ba guretzako zan hori aldaketa eta orduan hau ba txikitatik hola jardutia ba erabat desberdina ikusten da.

## 2. Atala: HAURREN EKINTZAK

- **Ikuste dezu jardun horietan neska eta mutilen arteko ezberdintasunari aurre egiteko gizartetik datozela gehienbat proiektu edo plangintza horiek edo eskolak jartzen dituela eta gero gizarteratzen direla?**
- Gizartetikan etortzen dienak normalian izaten dira egun konkretu baten ospakizuna edo nomarlian behintzat, adibidez martxoak 8a. Baina bestetan, eskolak planteatzen dugunean ekintza bat ez da desberdintzen adibidez inauterik, oraintxe dira eta, ez deu desberdintzen oharretan adibidez ez degu jartzen neskak gona e mutilak ez dakit zer. Are gehiago, gelan eman izan dia kasu batzuk "e nik nahi det gonakin etorri". Eta orain dela hiru lau urte hasten zian batzuk, "uu ba gonakin dator" baina hori ere gaur egun naturaltasunez ematen da. Hemen egunerokotasunean
- **Igual agian holako egunak aprobetxatzen dia ere..**
- Hori da eta animatzen dira eta lehen esan dizudan bezela kasu batzutan izan da tanteo bat iten dezula gelan; beno aber zenbatek jantziko du gona zenbatek jantziko ditu galtzak? eta umiak esan hasieratikan eta beno ba gurasoi aipatuko diet ez, eta ez dezaten beraiek sorpresa hartu edo kontran jarri edo eta bakarren batek esan izan du: "ez ez ez ezta pentsatu ere, lehenagotik ez dator gure umia, horrela ateratzia baino". Eta beste batzuk ba ez diote bestelako garrantzirik ematen edo ba potentziatu egiten dute giro naturalean hartzen dute. Bai batzuentzako da ikaragarrizko harridura edo "uu, ez da pentsatu ere!" beste batzuentzat berriz ez, familiaren arabera ere igertzen da hori. Orain dela bi hiru urte eskolan eman zan kasu bat, "ni pensar, como que se va disfrazar de chica? no no no antes le dejo en casa". Eta bueno atera kontuak gurasoak badiela 30-40 urte bitarteko gurasoak
- **Gazte..**
- Suposatzen da, gizartea eboluzionatu dela berez, baino ya, norberari atia jotzen dionean eta norberak erantzuna eman behar duenean, oraindik hori, ai! Erreza da esatia, parkian ai bira ze ondo baino ya norbera danian... Nik beti esaten det auzoko etxeko gauzak errez konpontzen ditugu denok baino norberanak dianian... Bestela, guk geuk, aukera hori horrelako adibide konkretuak ematen zaie nahi det esan, eta bakoitzak esaten duen hori... Edo badaude ume batzuk etortzen diela gantxua, koleta... eta baten batek puntualki zoze esaten badu ba erantzuten zaio: aizu! ba beitu guk ere badakau jartzia edo nik ere badakat!



Lehengo baten, batei aipatu nion: “galtzak soinean ditut” eta gelditzen dia batzutan baino beno dia oso gauza puntualak hola ee...

- **Eta gero hor, benetan, berezkon badaola, ba beno iturri batzuk badaude ba berezko sexu femeninoa edo sexu maskulinoa izan gero genero identitatea diferentziak markatzen dituna eraikitzeke orduan, uste dezu benetan existitzen dala desberdintasun hori zure ikuspuntutik? ikusi dezuna, bizitu dezuna...**
- Batzuk txiki txikitatikan ekartzen duten zerbait, ez dakizu esaten.. beste hainbat istori detektatzen ditugun bezela, “detektazio” hitza erabiliko det, esatezuna, jo ba ume hau... Eta urte batzuk pasatzen dianian, ez dezu sorpresaik eramaten LHko jarraibidea egiten zaionean, ba igual aurretikan aurreikusten dezun zerbait bezela. Agian konkretuki, horreaño jungo dianik edo ez baino esatezu bueno ba beituba, ba ume horrek ez dit sorpresaik eman edo, zerbait. Ez da izaten ain nabarmena ere baino beno egoten dira hor gauzatxo batzuk, hola txiki txikitatik dakartenak.
- **Eta hori izan leike, beraiek dakarkielako edo gizartea, familiak etxian... eskolaratu aurretik...**
- Ez hauek bi urtekin eskolaratzen dia orduan ez dakit, hori zenbateraino, ez nuke jakingo hori argitzen, batzuk bi urte oraindik ez dituztela eskolaratzen dia, bi urte esan nahi det gutxi gora behera, eta ez dakit, hor ez nuke jakingo, zer eragin dakan zerek.. Lehendikan datorrena edo zerbait... zaila iten zait horren erantzuna Garazi
- **Lasai, eta gero uste dezu horrek danak badakala zerikusia feminismoa, matxismoarekin. Beno azkenean, bi rol bezela markatzen dia ez, gizonetzkoa eta emakumezkoa; hori da batetikan binarismo hortan beste danak ez dia erreproduzitzen edo ez dia aintzat hartzen, ikusten dan hortan. Eta hor dago beste aspektu bat dana gizonan gailentzea edo... genero maskulinoan gailentzea femeninoan gailentzetik. Uste dezu horrek dana eragina dakala gero norberaren izaera eraikitzeke prozesu hortan.**
- Hombre, ikutua danak izango du! Azkenian, handik eta hamendik.... lehen esan dizuten bezela, hainbat gauza gu konturatu gabe hitz egiteko moduan erabiltzen ditugunak ere segun zenengan kiston eragina izango du eta askotan ez gea kontziente hortaz. Nik uste danak dakala eragina, bai etxeko rola, etxeko istorioak, eskolakuak, kalean hitz egiten dan moduan, parkean umeekin zaudenean aipatzen diren gauzak, bai hor etengabe jasotzen da danian; telebistako istorioak eta programak, etxean dituzten ohiturak... eske nik uste hori beti. Eta zu ez zarenean kontziente holako istorio batetaz, min eman dezakezu... buah! Hori askotan ez gea ain kontziente zelako eragina izan behar du inguru guztiak eta lanak.

Eske gaude, gaur egun gaina telefonuakine ta besteakin, ta zenbat bonbardeo jasotzen ditugun zenbat gauzenak eta nahi det esan, nik uste bai... Denengan eragina izango dula ez? izaerak daude, batzuk oso izaera markatua daukate

eta argi dute txikitatik ere, baina piska bat aldakorragoa edo sentiberagoa dena, ez dakiena nondik nora... auskalo ze influentzi ze istori sortu genezaken gu tartean geala e, nik uste ez geala beti kontziente...

- **Eta gero, beno, txiki txikitatikan rolan eta estereotipon erreproduzio hori, adibidez bost urteko gelan, zu eon zea etapa ezberdinetan ez? Ikusi dezu aldaketan bat bi urtekoekin hasi eta esatea jo ez eza dago ezer ain markatua, ba ikus dezakezu detaileren bat baino egunerokoan ez...**
- Bostean jada segun zertarako ateratzen dira. Ba esan dizudan bezela, koloriana, inauteritako jantziana, gero eta esango nuke, urteak aurrera joan ahala naturaltasun gehiagorekin baina oraindik badaude holako komentario batzuk horrela tarteka ttak, ateratzen direnak, beraiek kontzienteki. Orain igual ez da hainbeste aipatzen hori, zu ezin zera, neskakin ezkondu, baina hori orain dela urte gutxira arte, eskolan normaltasun batean, hasi gea bi amak eta ikusten, bi aita ez zaigu gertatu baina bi ama bai, eta hori jada normaltasun batean ikusi arte, izan da txokoetan margotzen ari zirela esan: “ba ni zurekin ezkonduko naiz eta ba bestak zu ezin zea nerekin ezkondu!” Holako istorioak gertatu izan dira. Eta de hecho horrelako eztabaida bat izan zan, orain dela urte batzuk andereino batekin bost urteko gela zan uste det, eta andereinoa sartuta: “zergatik ez da ezkonduko ba? Eta hurrengo egunean gurasoak eskolari etorri ea ze gai tratatzen ari zen galdezka. Erljio asuntua zegoen tartian e, ez dakit oso ondo zer zan baina, aber ze gai tratatzen ari zan... eskola publikoa dala ta laikoa dala ta galdezka. Eta hori naturaltasunetik sortutako gai bat zala, bi umeren arteko hori eta beno orain geroz eta gutxiago esango nuke
- **Beraz, aldatzen ari dela positiborantz**
- Bai nik uste, baina hori da gizarteak erakutsi digu baita ere bi amai izatea, ni orain dela, aber orain bigarren mailan dago, eta orduan hori naturaltasunez.. eta horrek bi ama ditu eta orduan aita aipatzen zenean, hizkuntza aldetik ere guk aldatu beharra sentitu dugu. Ze leno zan esan aitai edo amai, beti oharra: aitak edo amak konponduko dizu, eta guk ere hasi behar izan degu esaten, etxean konponduko dizute, ze batzutan gertatzen zen... bi ama ba... nik euki nuen mutila gainera oso, hirutik nagusiena da eta argi zeukan eta berak baten batek zeozer esaten zuenian, beti esaten zuen, ez ez nik ez daukat aitaik, nik bi ama ditut; eta horrek berak ere gelari lagundu zion ba...
- **Ba ez dela dena ain... etxean ikusten dutena**
- Baina bai bitik bostera horrelako gauzatxo batzuk ikusten dira, gero ta gutxiago baina bai...
- **Hor esperientzia pertsonalen aldetik badakazu “bitxikerin” bat edo kontatu dezun bezelakon bat, edo besten bat hola zuri markatu dizuna edo zuri eragin dizuna pentsatzea, ostra, igual hemendikan aurea zerbait aldatzea in dizuna...**

- Ez hori, aipatu dizudana, inauteritako kontu hori, nere gelan ez zan baina gertuko batian ba gurasuak esatia ez ba, ordutik aurrea ba beti markatzen dezu, bueno bakoitzak nahi duena e.. baina gona jaztea ez da ezer gertzen eta inauteriak dira eta ondo pasatzeko, ba bakoitzak nahi duena. Eta gero hori bai, gurason batek edo esan ere bai igual ba hemen ez da ausartuko baina etxian uneoro dabil aman edo arreba baten gauzak jantzita eta hemen ba ez... baina izaerak ere badu ba hori umia zan oso kortatua edo ixila edo... ordun holako gauzak zuzenean ba eztit egin... baina esan dezuna replanteatu bai hizkuntza, hitz egiteko modua, umeei jarduterakoan...

- **Hizkuntzan adibidez bai notatzen dezula zure buruagan...**

- Bai konturatzen naiz, eta gauzak ez ain markatzia, edo mutil neska edo, jolasian dabiltzanien edo patioa joaten dianian edo, futbolian dabiltzanien edo... Haueke badakizu bost urteko gelan futbola da, eske badakizu hura ezinda jolastu eta bueno ba zergatik ezin da jolastu ba... holako gauzak...

Realak adibidez emakumezkotan irabazi zuenian eta gelan gogoratzen det gelan asko markatu nuela adibidez ba beno, banun talde bat gelan oso futbol zalea eta beno ba beinga orduan aprobe txatu nun ez... ba holako gauzak eta txip hori mugituarazten dizu ez? gizartean hori hola dala, eta aldatu dezakegula denon artian, hori da piska bat horrelako gauzak... tarteka horrelako txapada batzuk ere irteten zaizkit.

### 3.Atala: GENERO IDENTITATEAZ DUTEN IKUSPEGIA

- **Orain jada zure identitatean aldetikan, identitatea da prozesu bat aldatzen doana, deseraiki, eraiki... orduan, zu haurren erreferente zarela jakinik, uste duzu zure genero identitateak eragina baduela berain genero identitatea zehaztu edo eraiki edo deseraikitzeke unean?**

- Ez det uste hola... hauek oraindikan adin hortan, ez zait gertatu edo ez naiz ohartu horrelako fijasak edo inork aipatzerik edo... Nik uste hori aurrerago beraiei ere zalantza sortu ahala gehiago... Eta ni HHra etori baino lehenago LH-n ibilitakoa naiz e, baina ez zait hola gertatu, edo behintzat ez naiz kontziente izan e. Igual hori da baino ez...

- **Eta adibidez, eskolan ez dago erreferente gizonezko edo genero maskulinoa dakanik...**

- XXX

- **Eta XXX da? konpontzen dituna... zaintza arloan...**

- Hori aldatu da, nik uste. Lehenago garbi, hortan bai, hortan arrazoia dezu... esaten zuten, zerbait errotzen zanian, hori bai "XXXk konponduko du, XXXk egingo du..." orain ez da hainbeste aipatze eta ez gu ikusi gaituztelako gauzak konpontzen edo baina beno hori hizkuntza aldetik aldatu da.

- **Igual ez da hainbeste...**

- Bai, bai, lehenago zen, zerbait ikutu orduko, ah hori XXXk egingo du eta hola. Igual guk ere ez dugulako erabiltzen, konturatu gabe lehen ere bah XXXi esango diogu, XXXk ez dakit zer... eta igual guk ere hori ba kendu dugu jada. Baina bai arrazoi dezu horretan e, lehenago zen ez dakit ze istori eta ara XXX... eta hori ba normaltasunez edo naturaltasunez, beno ba XXX esango diogu baina ez.. maskulino femenino, sino beno lan horretan dagoen pertsona bat bezela, ba beno bera dagoelako, baina izan bazan marijose ba bere orde, ba beno marijoseri esango diogu, nik uste, edo esango nuke edo nahiko nuke, ea hola litzakeen behintzat.
  - **Beno, baina zaintza arloan emakumea izate horrek eta konponketan ba...**
  - laz adibidez, nire gelakoek gizonezkoa izan zuten irakasle eta ez dut nabaritu horrela ba...
  - **Eta uste dezu joera hori aldatzen ari dela? esan nahi det. Ni Haur Hezkuntzan 90 gera eta 4 gizon...**
  - Ah ez, ez, ez da aldatu oraindikan eta FP-ra joango dira gizonezkoak emakumeak baino eta mekaniko, lehengo batian telebistan mekaniko neska bat eta beno denak harrituta zeuden... eta berak esaten zun, berai bielak eta motorrak eta olioia aldatzia berdin berdin egin dezaken gauza bat zela.
- Esaten dizut, gu oraindikan gaude hemen lehen esan dizudan bezela eta salbuarda bezela, baina nik ez dakit hor (LH), ez dakit. Baina hor badago zerbait galtzen dena...
- **Etapan bat...**
  - Bai, bai bai ihes egiten duena... Ez nuke zehaztu ez primaria dan ez DBH dan... zeren ez dakit baina bai... umeak etortzen dira hona naturaltasun baten barruan eta gero badago zerbait, bidean zerbait oztopatzen duena. Eta ez da izango zuzenian gurasoek esaten diela umiai baina...
  - **Eguneroko jardunean, gizartea osatzen duten helduek gazteagoek, gaztetxoek umeek.. eta nahiz eta helduena ere gaur egun gazteagoa izan, badauka...**
  - Zuk egiten badezu froga gelan eta nik hauekin... beno datorren ikasturterako banatu egin behar dira umiak talde berriak egiteko. Eta jolasak eta zenekin eta gaur honekin dago eta bihar ba beste batekin askotan... baina beno ba gaur jolasa ez eta benga arduraduna aukeratu bat gaur zure ondoan eseritzeko, askotan badira, jolas konkretu batengatik ohitura dutenak elkarrekin ibiltzeko: borroka jolasa gustatzen zaielako, edo futbola gustatzen zaielako baina bestela, ez dakienean zer den egingo dutena, berdin zaie mutila neska, berdin nahasten dira.

Gaur adibidez, Beti maiteko zaitut edo ipuin bat kontatu diet psikomotrizitate gelan, eta bi hartz dira, txikia dabil esaten amai uneoro, nik etxea puskatzen badet beti maiteko nauzu eta bukatu denean esan diet: beno eta zuek zein

dezue maite? eta konturatu naiz, hasi dira esaten; hasierakoak etxeakoak, beste batek sartu ditu jada lagunak, eta gelakideak sartu ditunak ere neska mutilak berdin berdin sartzen zitun...

- **Orduan askotan ez dela, ez zu nere laguna, gehiago agian jolas konkretu horrengatik...**
- Nik badakit gaur nere gela psikomotrizitatean adibidez, lau mutil, azkenean esan diet beno aber arnasa hartu, ze hori jada jolasetik burrukara pasatzen dabil, ze berotzen zebiltzan, neskak horrela ez ditut behin ere ikusi eta fijatu naiz jolasa zan, sumo, gainian... neskak sinbolikora eta gehiago baina gero hauek ere ibili dira korrika eta... bakarrik beste modu batera. Orduan, hor badaude detaile edo... ba zerk eragiten die hori horrela izatea, ikusten dituzten marrazkiak eta? ba bai hablando de carnavales... segun ze ikusten duten ere, ze eratako... futbola gustatzen zaiena, galdetzen badezu? aita eta batez ere aita esango det, forofoak dira, anoeta juten direnak eta ez dakit zer... ba umiengan yasta. Baina orokorrian bestela hemen gauza horiek ez dira, gelako barruko gauzak ez dira.
- **Eta orduan, jada laburtzeko e, uste dezu genero identitatean aldetik binarismo horretatik aterata hobekuntza dagoela edo bere horretan jarraitzen degula**
- Nik uste oraindik bere horretan jarraitzen degula, hortxe intentando hacer algo desberdin ta hau eta beste baina oraindikan hor badagoela....hor daukagu lana...
- **Beraz, hezkidetzan gaude baino esango zenuke, hezkidetzak bere oinarrian daukan puntu horiek danak betetzen diela edo sinpleki hor daudela?**
- Oraindikan hor daudela, hau lan bat, urteetan egiten dena, hau ez da... bapatian benga egingo det. Gizarteari begiratuta ere, telebista eta programa batzuk eta igual etxian hasten zera ikusten eta ikusten dezu edo beno esertzen zea, eta joe.. hola gaude oraindik... hau zer da? eta hori ikusiko dute... zenbat aldiz, eta zer ikusten ari zea eta etxoin eske aluzinatuta nago. Adin horretako gazteak eta zer demoniotan ari gea? bizitza zer da hauentzat? baina beno hortan eta nik uste ez dagoela mundu hortan bestelako aldaketarik... Ordun oraindikan nik uste det lana dagoela baina izugarria...
- **Esango zenuke komunikabideek, hurrei bideratuta marrazki bizidunak edota teleailek eragin handia daukatela?**
- Bai bai bai
- **Eta gaur egungo teknologia, informatizatu guztiek...**
- Izango degu eta egingo degu baina, hasten bazara aztertzen.... bai telebistan anuntziotan da aipatzen da, beno ba aldatu eta.. baina zer da? emakumea atera dute eta gizonezkoa jarri dute ondo dagoelako. Baina oinarrian oinarria...

hori da? el cambio bakarrik izan da hor? de fisico femenino a fisico masculino...  
Nik uste hor asko asko asko dagoela egiteko.

Eta hor lehen aipatzen nuen bezela gaur egungo gurasoek, gure artian dabilzan gurasuak gaztiak dira, hau da ikasi dute beste era batera, baina nik ez dakit, kontziente dian... Ez dakit... nahi det esan; nere gurasoak edo zure aitona amonak laurogehita piko urte, beno bai hauei eskatzia ba igual ya paso un poko.. baina hainbat gauzetan konturatzen naiz, hobeto hartzen dituztela hainbat gauza.

Hori da gure ama adibidez, eztaikit zein ezkondu da gertuko bat, bi neska ezkondu zian eta... baina zelan holan? eta gerora, galdetzen dio ikusten duenian, eta yasta beno eman dio buelta edo naturaltasunez onartu du ulertzen? Askoz ere naturaltasun gehiagorekin gizarte batekok oraingoak baino.. Ze oraingoak esango dute bai eta ez... Txisteak whatsapp-ez... ez dira asko iristen baino iristen dira gaur egun oraindik... zer dira? baina nik esaten det hau zenek bidali du? Baina gaur egun inkontzienteki, eta bidaltzen dunak ere seguru asko, jajaja barre egin eta... hasten zara pentsatzen eta aber zertan ari gara? Hor dago hori...

- **Eta hori inplizituki edo inkontzienteki edo iristen da...**
- Hori da ba.. betiko txiste "graziosoak"...
- **Eta hau jada azkena, uste dezu eskola batean fijo asko egoteak aldaketak emateko orduan, egunerokotasunean eragin negatiboa edo positiboa daukala?**
- Nik uste, eskola batean fijoak egotea ere ez dagoela gaizki baina, fijoak eskola barruan ere mugitu egin behar dira. Estankantzea dago, nire ustez e, ni egon naiz eskola hontan 2007tik, eta izan naiz bi urte koordinatzaile, bi urteko tutora, hiru urteko tutora, lau urteko tutora eta bost urteko tutora eta neretzako hori da oso aberatsa. Ze beti bazaude, rol berdinean gauz berdina egiten, bai oso eroso zaude, ze badakizu aurten benga, hurrengo urtean benga eta aldatzeak suposatzen du zu piska bat ere mugitzea; kezka sortzea, erronka moduan ai aber zein tokatzen zaidan zer egin dezakedan... eta beti ez dezu ondo pasatzen baina zuretzako pertsonalki oso aberasgarria da. Orduan jende berria etortzea, oso ondo dago ze beti erakusten dute zerbait, fijoak egotea ere aberasgarria da baina fijo en movimiento. Ze horrek ematen du piska bat gauza berriak ikasteko, ze zu 2-3, 2-3, 2-3 hortxe bazabiltza beti, ba hortxe zaude. Ze 4-5ean egiten dira beste ekintza batzuk eta hemen ikas komunitateen barruan ere ikusten dezu... horientzako ere prestatu behar zea, materiala bildu behar dezu... informazio eskatu behar dezu... eta horrek aberastu egiten du pertsona bat nere ustez. Beste batzuk ba beste iritzi bat daukate eta oso eroso daude eta orduan ba... baina nik uste behar dala aldaketa, beti ikasten da. Etortzen zaretenongandik beti ikasten da, eta hori hola, guk ere guk ez dakigu dana, gu ere ikasten ari gara, handik hemendik horrek esan du eta aztertu begiratu eta ikusi horrela ikasten da.

#### 4. Eranskina: Transkribapena 3

- **(Ikerketaren aurkezpena egin ondoren) Aurrena, mesedez egingo dezu zure aurkezpena? izena, adina, eta zenbat denbora daramazun lan honetan**
- Bale. Ba XXX3 naiz 51 urte ditut eta eskolan honetan 12.ikasturtea izango litzateke, hezitzailea naiz, eta beti honela egin dut lan, bai HH nahiz LHn.

##### 1.Atala: ESKOLAREN JARDUNA

- **Eskolak historikoki prozesu bat izan du, segregatua izatetik mistora pasatzea eta ondoren, gaur egungo hezkidetzaren formatua, iruditzen zaizu hezkidetzaren hezten direla gaur egun haurrak?**
- Nik uste, ahalegin bat egiten ari dala eskola, askotan igual ez dakit, tresna falta edo ez dakigu oso ondo nola egin, guk izan degun heziketaren baitan jokatzen degulako askotan eta hezkidetzarekin ez daukala zerikusirik guk jaso genuenak ez.
- **Eta iruditzen zaizu orduan, egiten dezun hori zalantzan jartzen dezula?**
- Bai zalantzan jarri eta ziurtasun falta ez, egiten ari zarena benetan den hezkidetzaren alde edo ez edo teorikoki zerbait esaten ari zara baina gero zure egiteko moduarekin baita kontrakoa igortzen dezu, baina nik uste azken urteetan batez ere kiston ahalegina egiten ari dela hortan.
- **Gutxi gora behera azken zenbat urtetan izan zean prozesu horren parte esaterik bai edo progresiboki ikusten joan zaren gauza bat izan da...**
- Nik esaten dizut 12 ikasturte ditut hemen eta nik uste, hasieran ere ez dezu eskola ezagutzen baina beno bereziki azkenengo 5-6 urtetan eman dala, edo ni behintzat bereziki konturatu naiz prozesu hortaz. Ai garelako aldatzen
- **Ederki, jardunetan zentratuz, eraikitako ezberdintasun horiei aurre egiteko plangintzak edo azken 5-6 urteetan behintzat jartzen ari dala ez eta hori azpimarratuko zenuke....**
- Bai ez dakit plangintzak diren, nik ez det ezagutzen zerbait konkreturik dagoenik baina nik uste egiten diren ekintza ezberdinetan beti dago azpitik zenbait ideia edo kriterio kontuan hartu behar direnak hezkidetzaren inguruan. Ba orain inauteriak datozela edo beste zenbait gai proiektu bezala lantzen direnean. Nik uste det badaudela zenbait premisa hezkidetzaren bueltan bultzatu behar direnak, edozer proiektu lantzen dela ere, esango nuke nik
- **Agian beraz, proiektu konkretu bat hau lantzeko bideratuta baina, proiektu ezberdinetan hauxe uztartuta egotea ez?**
- Bai, nik uste gehiago ideia hori dela, ez dakit.

##### 2.Atala: HAURREN EKINTZAK

- **Beno, haurran kasun iruditzen zaizu, beno hau da bakoitzak eta norberak bere ikuspuntutik begiratuta, ikerlari askok esaten dute baietz beste askok ezetz... haurrak bere existentziaz genero identitate horretan berezko ezberdintasunik baduela, edo identitate hori da jaso degun hortatik eraikia?**
- Ez dakit ziur, nik uste det, jasotzen degunaren eragina izugarria dala. Izugarria. Baina gero egia da ere, haur bakoitzak bere prozesua egiten duela; berak erabaki dezan, neska, mutil edo edozer. Eta identitate mailan ere bai, ez dakit ez nuke jakingo esaten ere.
- **Baina zentzu horretan sexu femeninoa edo sexu maskulinoa izateak, uste dezuz sortzen den eragin bakarra dela sortua edo gizarteak inposatzen dion horretatik bideratua**
- Nik uste det, guk markatzen ditugun bide askok eragiten dutela, umeen identitatearen eraikuntza hortan, nik uste det asko eta asko. Eta zerekin identifikatzen diren eta zerekin ez eskeintzen zaienaren arabera, ez dakit.
- **Eta eskaintza hori uste dezuz, feminismoa edo matxismoak sortzen dun, hau da gure eskaintze hortan bilatzen den ikuspegi horretatik badagoela esango zenuke, edo kontziente garela...**
- Nik uste det eskeintzen diegula guk jaso dugunaren arabera ez, eta nik uste gaur egun badagoela beste beno gizarte mailan ere gai hau asko mugitzen ari da, orduan pixkanaka gure bizitzan integratzen ari garen neurrian ere ari gara ikasleei guk jasotakoa beste era batera eskeintzen behintzat ahalegintzen ari gara. Eta hortxe oraindik, gure kontraesanak, feminismotik, matxismotik... nik uste det, gu geu pertsona bezala, irakasle bezala eta hezitzaile bezala, pertsonalki bizitzen ari garen etaparen arabera eskeintzen diegula beraiei, orduan...
- **Beraz gu bizitzen ari garen hori eskeintzen dugu nolabait ez...**
- Bai nik uste det baietz, askotan gure kontraesanekin bestetan guk argi ikusten ditugunean gauzak beraiei ere argi azalduz, zalantzak ditugunean ere beraiei helaraziz, jada pertsona bezala nik hori usten det behintzat.
- **Eta zerbait esango zenuke estereotipo nahiz gizarte rolen inguruan bereziki familiak daukaten eraginaz, paperaz...**
- Familiaren eragina izugarria da, eta familiarengan, telebistan jasotzen degun informazioa, oso kontziente ez balima zera zer den jasotzen ari garen hori, guraso bezala... jo, ba seme-alabei bidaltzen diezun mezua eta informazioa ere kriteriorik gabea da. Eta orduan, sartzan zara inertzia batean non errepikatzen dituzula azkeneko eztaikit zenbat generaziotan errepikatu direnak ez. Nik uste det kontzientzia asunto bat dela, ez momentu batean gelditzea eta esatea ez aber....



- **Eta hor adibidez iruitze zaizu gaur egun gai hau pil pilean dagon ezkerro, guraso eta familiek kontzientzia gehiago dutela edo daukatela edo, hausnarketa eta zalantzan jartze hori egin dutela edo orokorrean oraindik jendea erosotasunean dabilela.**
- Nik uste det kontzientzia maila gehitzen ari dela, baina honek esan nahi du, ahalegin bat ere egin behar dala horren arabera jokatzeko eta azkenean gaur egun dagoen estresean eta daramagun dinamikan, errezena dala dejarte llevar, eta orduan hasten gara berriz errepikatzen baina beno nik uste det, pixkanaka...
- **Agian beraz, kontzientzia badago baina, egite hori falta da..**
- Bai dudik gabe, kontzientzia hori praktikara eramatea
- **Beno, bereziki esperientziarik edo bitxikeriarik edo gertatu izan zaizu honen inguruan... ba ez dakit, ba ikuste haur baten genero horren arabera sortu da egoera "bereziren" bat...**
- Niri zuzenean ez zait gertatu badakit eskolan gertatu direla eta horrela eta beno prozesu bat eman dela hori lantzeko gurasoekin ikasleekin kideekin eta horrela, komunitate mailan ere bilerak egin zirela, ezagutarazteko eta beno zuzenean ez det bizitu baina bai zeharka...
- **Ta bereziki agian geratu zaizu zuri, momentuan erantzun bat eman agian haur bati eta gero pentsatzea jo agian.. a ze erantzuna eman dioten...**
- Ez bereziki egia esan, agian izan da gehiago atentzioa deitu dit. Irakasle bat ikusi dudanean, hezitzailearen ikuspegitik diot e, beti ikusten dezula beste plano batetik ez, ikusi dudanean irakasle batek nola eman dion egoera bati aurre, atentzioa deitu dit, ikusi dudalako era ezberdin batean tratatzen gaia, eta beno horrek jakinarazten dit zerbait aldatzen ari dela, agian nik zuzenean ez dut bizitu baina, bai gu beti gaude hor ez pauso bat atzera, jo eta hortik ere gauza asko ikusten dira.
- **Beraz, aldatzen doala uste dezue orokorrean ez**
- Bai, bai, bai, duda gabe, HHn adibidez, gela batean haur batek besteari ezezkoa esatea eta irakasleak ze garrantzia ezeko horri ez, esan dizu ez eta horrekin nahikoa da. Eta lehenengo aldian entzun nuenean esan nuen joe... hau ez det sekula entzun adin honetan, ez mutil eta neska direlako baizik eta berdinen artean, esan dizu ez, eta ez duzu zertan haserretu ez esatearekin nahikoa baita. Ez dakit detaile horietan nik uste, eta ze garrantzitsua txiki txikitatik hori barneratzen balima dute ba...

### 3.Atala: GENERO IDENTITATEAZ DUTEN IKUSPEGIA

- **Zure identitatearen inguruan hasiko gara... nik bereziki beti danik izan det jakin min dezente honen inguruan eta beno momentu hontan are gehiago ez, orduan, laburrean esan daiteke identitatea dela, inoiz finkatzen ez den**

**prozesu bat eta etengabe eraikitzen doan aldaketen multzoa. Orduan zure hezitzaile identitatean aldetik kontziente zara egin duzun prozesuaz egon bada?**

- Hezitzaile bezela, nik uste det ezetz. Emakume bezela aldiz, nik bai bizitu dudala prozesu hortan nire emakume identitatetik urte batzutan askoz hurbilago sentitu niaz eta beste batzutan askoz urrunago. Hurbilago agian kontzienteago e, eta ez det uste nere kasuan adinarekin zerikusi duenik baizik eta izandako bizipenekin gehiago.
- **Momentuan eduki dituzun gertaeren inguruan ez..**
- Bai, hori da. Hezitzaile bezela ez baina pertsona izate bezela ez da lineala izan eta ziur nago ez dela izango. Eta inoiz errefortzu bat behar izan dudala identitate hori berreskuratzeke eta berriz sentitzeke ere bai
- **Eta iruditzen zaizu identitatean inguruan bai irakasle, hezitzaile, pertsona, umeen inguruan gabiltzan eragile ezberdinetatik, egiten dutela hausnarketa bat? Esan nahi det identitatea hausnartua dela edo ez, hor dagoen zerbait...**
- Nik uste det asko dagoela egiteko, gauza asko mugitzen ari direla, hausnarketa batean saiatzen ari garela, baina oraindik oso urruti gaudela. Identitatearen hausnarketa minimoa da, eta batzuetan da gai bat kontenplazten dena, zama bat gehiago bezela, honi ere eutsi behar diogu, jo hau ere landu behar degu?... bai bai nik uste det oraindik dagoela oso bide luzea e..
- **Eskolan lehenengo egunean iritsi nintzenean, atentzioa deitu zian, eta berez gaur egun ere bistakoa da, Haur Hezkuntzako graduan gaur egun 90 ikasleetatik 4 dira mutilak... Eta eskola iristen denak emakumeak, irakasle, zaintza paper horretan eta aldiz hiru sukaldariak gizonezkoak eta ate zaina ere. Orduan uste dezu horrek ere eragina baduela umeen ikaskuntzan...**
- Bai zalantzarik gabe, nik uste nahi eta ez iristen zaien informazioa dela, begietatik sartzen den informazioa da, bai ez dakit..
- **Eta bereziki, XXXen (atezaina) presentziari begiratuta, beste danak irakasle hezitzaile moduan zaintza arlo uztartzen duna eta XXXn kasuan, gauzak konpontzen dituena edo horren inguruan uste dezu menpeko rolen isla edo izatea daukala?**
- Nik uste det baietz, eta gero gure esku dagola nola jakinarazten diegun beraiei ere, ba adibidez zerbait zikintzen zaienean ez, beno ba etxera eraman eta amari esan.... noski gure esku dagoela esatea ba etxekoei esan, bai amari edo atari, labadoran sartzeko eta ez da ezer geratzen. Edo zerbait apurtzen zaienean ba etxekoei esan... eta ez esatea "aitari esan konpontzeko..." beno nik uste du begietatik jasotzen duten informazioa oso potentea dela eta hezitzen dugunon eskuetan dagoela, bai guraso bai hezitzaile, familia... horri beste ikuspegi bat eman eta gehitzea, hori XXXren kasuan horrela izan daitekeela baina beste era batera ere izan daitekeela. Kasu honetan gizonezko

bat dagoela baina ez duela zertan hala izan. Eta hori gure esku dago, zeren gizarretik datorren indarra oso markatua da eta gauza batzuk oso markatuak daude.

- **Eta horri buelta ematea...**
- Oso oso zaila izan daiteke. Eta beno erabiltzen dugun hizkuntzak ere ze garrantzi duen, oso inportantea da. Ze hitzetan bakarrik erabiltzen dugun bakarrik maskulinoa, bakarrik femeninoa...Bietako edozeinek gauza bera egin dezakeela adierazteko ez, baina gauza batzuetan inertziak edo, beti gizonezkoena jotzen degu edo...
- **Eta gero, esan dezue jada bide luzea daukagula egiteko, baina bereziki zure jardunean iruditzen zaizu aspekturen bat hobetzeko daukazula gai honen inguruan edo....**
- Nire buruarekin seguru baietz. Hombre nik onartzen det nik, kulturalki jaso dudan guztia ere oso presente daukadala eta askotan ahalegin bat egin behar dudala sinisten dudan horri forma bat emateko ere eta horren arabera jokatzeko ez, beno erronka handia da, eta sentsazioa daukat oraindik ere gauza asko ikasteko daukadala baina beno horrek ematen dit indarra ere...
- **Eta iruditzen zaizu, eskolan kasuan bereziki hemengoan, badagoela, jo honi buelta eman behar genioke edo...**
- Jo seguru baietz, konkretuki ez dakit baina gauz asko egiten ari baldin badira da badagoelako zeregina orandik, agian konkretuki ez dizut esan baina seguru dagoela. Bai bai, etengabe sortzen dira, gaur komentatzen zuna ez umekin zentzu batean lanean zaude eta uste dezue, baietz eta derrepente pum alarma, baina horrek ere nik uste ematen digula indarra mantentzeko eta gauzak egiteko, lan horretan jarraitu behar dela hausnarketa hori egiteko ez, eta erantzun berriak bilatzeko, egiteko modu ezberdinak bilatzeko, adierazteko modu ezberdinak bilatzeko.... nik uste umek pista asko ematen dizkigutela eta haiek izan behar dute gure informazio iturria ere ez, beraiek gauza nola bizi eta egiten dituzten, horrek islatze digu zertan ari garen.
- **Eta bukatzeko, iruditzen zaizu aldaketa horiek emateko garaian eragina daukala eskola batean urte luzez lanian ari diran pertsonak bertan jarraitzea edo ez edo... aldaketa bat emateko garaian bertan dauden pertsonen egonkortasunak eragina dauka positiboa, negatiboa, ez du...**
- Eragina dauka, baina eragina dauka urte asko daraman pertsona batek, eragina daukat pertsona berrik, eragina dute gurasoek, eragina dute denak... nik uste det eskola batean kolektiboaren gehiengoak urte pila badarama, horrek badaukala bere alde ona eta bere alde ez ain ona.

Daukate ikuspegi zabal bat, prozesu bat bizi izan dute, eta beno, agian berriak freskotasunaren zentzua dakar... baina noski eragina bai bai denak du eragina, denengandik daukagu zer ikasia. Adibidez, XXXk bezala, bere bizitza osoa hezkuntzan eman duen pertsona batetik gauza asko daukagu ikasteko, eta

berrietatik zer esan... Nik uste uztartze hori behar dela, errespetuzko komunitate bezala lana egin horretan, ingurukoak, gurasoak...baina bai bai noski eragina duela.

- **Zerbait gehitu nahi?**
- Dela oso gai potentea eta neretzat espazio gehiago utzi behar litzaiokeela momentu honetan hezitzaileen formakuntzarako ere, zeren hutsune handiak ditugu eta zalantzak egunero sortzen zaizkigu, eta ez dakit ematen zaion daukan garrantzi guztia, ahalegintzen gera baina sentsazioa da beti atzetik goazela arrastaka, baina beno gizartearen demanda da ere bai.

## 5. Eranskina: Transkribapena 4

- **(Ikerketaren aurkezpena egin ondoren) Lehenengo izena, adina, zenbat urte daramatzazun hezkuntzako etapa ezberdinetan...**
- Ni XXX4 naiz, 48 urte dazkat eta irakaskuntzan 95ean hasita, 25 urte daramatzat.

### 1. Atala: ESKOLAREN JARDUNA

- **Elkarrizketa atalka antolatu det, aurrena eskola eragile modura, gero haurretan zentratuko gara, ondoren zuk zer bizitzeko aukera izan dezun eta azkenik, irakasle identitatea. Orduan eskolan aldetik, esan daiteke, eskolatan garapen bat bezala egon dela, segregatutik, mistora eta ondoren hezkidetzatarako pausua, iruditzen zaizu gaur egungo modelo hau hezkidetzako modeloa dela?**
- Suposatzen da baietz, hala behar dula, gero azkenian hau gizartean islada bat da eta rol asko sartuta dauzkagu eta nahi deu baino azkenian horrela hezi gaituzte gu, umien gurasuak, eta hori hitzik gabe ere transmititu iten da baino saiatu, saiatzen gea eta askotan ba hori kontziente zean heinean ba hori gauzak aldatzen jute zea.
- **Horri lotuta, esaten da beti paperak dena jasan dezakela, ba hezkidetzako oinarriak hauek dira eta beno metodologikoki hau eta hau... Gero aurrera eramateko iruditzen zaizu egiten direla ekintzak horren baitan edo irakasle oro dagoela horren jakitun edo..**
- Beno ba orain esango nuke pisa bat aldatzen ai dala, baina orain arte gauza asko izan dia oso ekintza itxiak eta egun hortan egiten dia eta beste momentu puntual batea, ba beno pixkanaka gure pentsamoldea ere aldatzen doa hortan egunerokotasunean ere juten gea hori sartzen baino bai, askotan gelditu da anekdota eguna edo momentu anekdotiko horretan ez... baino bueno egia da asko aldatu dala eta asko aldatzen ai dala baino bueno egia ba oraindikan...
- **Jardunai begira, badakizu konkretuki eskolak dakan plangintzan bat proiekturen bat edo horren inguruan edo...**
- Berez bai badago proiektu bat, ni orain piska bat deskonektatuta nago baina, pare bat urtetan, alaban kontuakin ez dudalako lan egin, baino badago Hezkidetzatza batzordea uste det izena dula eta horrek badaka plan bat, hau da berez badago; behartuta gainea, Eusko Jaurlaritzatikan.
- **Eta irakasleengana iristeko komunikazio hori badago?**
- Bai berez bai, gertatzen dana da, batzorde honen kontuak bai geratzen direla askotan, egun konkretu askotara mugatua eta zuzendua. Nahiz eta gero ipuinetan eta lan handia egin den, ipuinak piska bat aldatzen joateko, zeren azkenean haur hezkuntzan ipuinak asko erabiltzen ditugu eta beno hortan bai egin dala lan handia eskolan erabiltzen ditugun ipuin horiek piska bat aldatzeko.

- **Eta iruditzen zaizu funtzionatu duela orain artekoak, esan nahi det, prozesu hori positiboa dela uste dezu, baino ikusten dezun alde flakoena edo zein dan esaterik bai...**
- Ba ez dakit, zeren gero gizartea ikusten dezu eta eskuak burura botatzen dituzu, ze suposatzen da egiten degun hori oneako dala baino gero ikusten dituzu 20 edo gutxiagoko neska mutilen edo mutil mutilen arteko harremanak eta ez dia guk genitun harremanen antzekuak, ez dakit oso desberdinak dira eta iruditzen zait neri ba gauz askotan okerrea joan dala. Ba kiston errespetu faltak, gero bueno indarkeria eta hori... lehenago ere egongo zian eta igual ez genekin baino orain ikustena 16 urtekoen artean ba horrelako gauzak ba... zerbait gaizki egiten ari garen seinale dudik gabe.

## 2.Atala: HAURREN EKINTZAK

- **Beno haurretan zentratzen joango gara pixkanaka, iruditzen zaizu haurrak berez jaiotzen diren momentutik, sexua kontuan hartu gabe ezberdintasunen bat badauzkatela, esan nahi det, bakoitzak dauka sexu bat baino berez identitate ezberdintasunen bat badagoela iruditzen zaizu?**
- Ba orain dela gutxi arte igual esango nizun ezetz, baino alaba eduki dudanetik, eta hombre aber nere alaba eta nere semia gizarte honetan bizi dira eta hortikan kutxatuta daude eta gu ere bai ez, eta guk guraso bezela ere gauza horiek emango dizkieula, baina ain dira desberdinak, ain ain ain desberdinak eta hori, nere semia ez dela, beti mutil horien rolan barrun, futbola, borroka... oso zalia, oso goxua, lasaia da.... baina hala ere nik oso ezberdinak ikusten ditut eta ez dakit nondik datorren, zeren ez dut pentsatzen guk transmititu diogun horren eragina bakarrikan izan diatekeenikan, baino bueno aztertzeko gauza oso interesantia da. Hori oraindik kolokan daukat.... jajaja
- **Eta horretan iruditzen zaizu ekintza horiek direla guk markatzen dizkiegulako edo guk erreproduzitzen ditugulako edo, berez sexuak berak daukalako eragina?**
- Hombre, gauza asko rolak markatzen ditugulako, ze guk beno semiakin ikusita ez, kolore roxanganako kontrako hori eta hori gure etxean ba ez, bere aita roxaz jantzita jutea eta beno nik uste hori dala gizartetik jaso dun zerbait eta ez dakit, orain uste nun ez zela berezkua dena zela kanpokua baina, alabak... ba ez dakit baino beno gauza asko bai direla kanpotik jasotakuak, nik semiagan gauza asko ikusitut, esate ditun gauza batzuk... baino hori nundik atera dezu? Beste ume batek jaso duna, ze hori hemen ez dezu ikusi hemen... ez dakit erantzun dizuten...
- **Bai beno, ea dan norberaren eragina edo jasotakoa...**
- Hombre, jasotakua asko asko asko bada eta adinak gora joan ala gehiago, txikitan ez zait iruditzen baino gero bai,

- **Imitazio hori, berez indartsua oso lehenengo etapetan dena esaten dena, zuri iruitzen zaizu rolen asuntuan edo bi bide horietan, gehio markatzen direla adinean aurre egin ahala ez**
- Bai bai nik uste dudarik gabe baietz, hombre egia da telebistak ere eragina daukala ez, ze konturatu gabe ere, zuk ikusten dezu telebistan parian zerbait ikusten ai dala, eta beno dana ez dezu ikusten beakin ta gero egun batian eseritze zea ta esatezu ostras... ze transmititzen duten marrazki bizidun inuzente batzuk, eta dago oso oso markatuta.
- **Eta hor adibidez esaten da, feminismo eta matxismo hauetan, bat da gizaratean sexu femeninoa eta neska identifikatzen dun horrekiko daukan irudia eta bestea gizonan gailentzea horrekiko, ordun uste dezu gizonan irudi hori txikitat markatzen dala emakuemekiko. Esan nahi det, txikitan agian nabaritzen da gero heldutan, kontestuaren arabera, aldea igartzen dela.**
- Ba hori nik esango nuke ezetz, osa gainetik jartze hori ez nik ez det ikusi, eta nik uste batzuetan aldrebek ez guk oraindik oso sartuta daukagu, generalian zerbait esan behar dezunian, adibidez hizkuntzan guk maskulinoa ez eta adibidez nere semiak eta bere lagunek, esaten dute bita, "neskak ama baino biak" ba beno hori beraiek oso sartuta daukate, gainetik jartze hori ez, ez det ikusten adin txikitan, bai desberdintze horrena, baino ez bat bestea baino gehiago dan, gehio da banatze gea, eta neskak eta mutilak; hau mutilan gauza eta hau neskena... baino ez bata besta baino gehiago izateana...
- **Rol konkretu horiekin segiz, esan dezu, adinean gora egin ahala gehiago markatzen direla baino, zuri hemen eskolan bereziki, gertatu izan zaizu zerbait atentzioa deitu dizuna edo jo txipa aldatzea egin dizuna edo... horren inguruan ez, lehengoan batek esaten zidan, jo dana kolorekin: urdina eta arrosa... horrelakorik...**
- Ba ez egia esan ez zait ezere etortzen... etortze bazait kontatuko dizut....
- **Ados! eta adibidez, bitxikerin bat gertatu zaizuna honen inguruan...**
- Umiekin?
- **Bai hori da...**
- Beno ez dakit honekin... beno ba bai baneukan ume bat etxe txokuan ikaragarri gustatzen zitzaion jolastia, ta gero konturatzen zan eta esaten zun: "mi madre me ha dicho que no juegue con las muñecas que se me va a caer el pitito", hiru urteko gela batian hauxe, edo etxea azkazalak margotuta jun eta beno hau neri gelan zuzenean ez zait gertatu baina bai koordinatzaile egon nintzenean ama bat etorri zitzaidan keizatea esanez bere semiai ez margotzeko hori nesken gauza dela eta.

Beste bat etorri zan, ama bat kexatzea andereinuataz, gelan landu zuela, bi neska eta bi mutil ezkondu zitezkeela, eta hori ba ezetz, eta orduan guk hartu

genuen eta esan genion ba andereinoak egin zuela, gizartean gerta daitekeenaren islada, eta amak ba berak ez zuela horrela bere haurra hezitu nahi eta horixe zegoela... ba bi neskak esan zuen gelan gu handiyak izaten geanian ezkondu ingo gea, eta beste mutilak esan zion ezin dezu eta beraiek bai, ezin da nere etxian esaten due ezetz, eta andereinoak esan zuen baietz, eta orduan gero guraso horiek etorri zian kexatzea nola andereinoak esan zion, beraien hitzan gainetikan...e ta hori oraindala gutxi... lau bost urte, ez pentxa hainbeste denik...

- **Oraindikan segitzen degula gurasoen...**
- Bai bai etxeko heziketekin asko... bestiek denbora gehiago dira e baino, bai bai

### 3.Atala: GENERO IDENTITATEAZ DUTEN IKUSPEGIA

- **Eta orain bai irakasle identitatean baitan, iruditzen zaizu zure itxurak zure izateko erak zure gauzak iteko moduak gu erreferente izango gean aldetik eragina daukala argi dago baina bereziki aipatzen ari garen alderdi honi begiratu, ez edukitzea erreferente “neutrorik” uste dezu eragiten diela berriz binarismoan erortzeko...**
- Bai. Nahi gabe, nik uste det baietz, guk oraindikan oso sartua daukagun gauza bat da. Nahiz eta hausnartu eta aldatzen saiatu.. azkenian hori guk, nei iruditzen zait nere etxian ez detela jaso beste askok jaso dutena ez, nere gurasuak nahiko aurrerakoiak izan dia horretan eta... baina hala ere, asko dago aldatzeko izugarri.
- **Eta adibidez, identitatean inguruko hausnarketa iruditzen zaizu irakasleek, hausnarketa hori egin dutela, edo egiten ari direla edo orain datorrela bultzadarik handiena, iristeko dagoela...**
- Bai, hori egiteko dagoen gauza bat da nik uste, puff.. bai bai genero identitaterena bai...
- **Berez identitatearena irakasle moduan bat daukazu bat eta pertsona barrun uztartzen da...**
- Bai bai nik uste oso sartuta daukagula, gelak egiteko unean ere, erdiak neskak beste erdiak mutilak, eta hori de hecho, arreta goiztiarra pasatzeko unean ere, jartzen dezu, berak badaki esaten bere izena, bere adina, eta neska edo mutila den, eta guk ba galdetzen diogu, baino guk ere, nahiz eta gero bere sexualitatea zein dan, guk ere, beste genero identitate horiek orandik ez dauzkagu barneratuta, ez ditugu ulertzen, gero ya ba hori homosexuala, heterosexuala... berdin du bere harremanak agian barneratuago ditugu baina identitate hori nik uste guk ez degula ulertzen, zenbat dauden, bakarrik neska mutila, eta gero aparte sexualitatea baina, hortik kanpoa, egia da trans hori geroz eta gehiago entzuten ari dela, eta eskolan egon dira kasuak baina... gero kontatuko dizut anekdota bat nere ahizparena..
- **Ados, ederki**



- Nere ahizpa txikia zenean, beno Amaia (ez da izen erreala) izena du, eta beti izan da futbola gustatu zaio, pelotan ibiltzea eta bakizu... berak egun batian esan zuen mutila nahi zuela izan, eta gu hiru gea bi neska, mutila eta Amaia gazteena. Eta Amaio deitu behar izan genion bolara luze batean, bestela ez zuen erantzuten; berez bastante egoskorra da bera e eta ez zituen soinekuak jartzen eta egun batian ezkotza batera jun ginan eta soineko bat jarri zion amak, egun santu osuan negarrez egon zan, soinekua zeukalako, eta horrela ba ez dakit zenbat denbora izan zan, guri luze egin zitzaigun ez dakit ajajaj!

Eta orain dela gutxi esaten genion bazkari batean, Amaia, zu orain jaio izan bazina, esango genun dagoen mugimenduakin, transexuala zinala, eta nere ahizpa ez da, emakumia da, ez da femenina femenina, bere bikotea gizona da bera heterosexuala da, eta gaur egun, nere ahizpa ba jada igual sartuko genuke gurgil horretan eta barre egiten diogu, Amaia igual... Nola guraso bezala, irakasle bezala ere, jakin beharra daukagun etiketatu behar hori. A ba orduan bidea bilatu behar diogu dena delari, eta denbora kontua ere bada, eta nere ahizpa karruan egongo zan, zeren esaten zion nere amai: "ama erosi pitito bat, mesedez ama erosi". Osa bai bai bai oso egoskorra da bera aparte e, baina gero begira,

- **Eta izan daitekeela ere, momentuan, jakinda bere identitatea etengabe aldatzen doan elementua dela jakinik...**
- Noski, bai bai bolara batian berak mutila nahi zuen izan, listo! Baina bera orain emakume identifikatzen da eta heterosexuala da. Eta karo orain esaten diogu, denak Chrisalisen barruan egongo ginen, zu jada identifikatuta...
- **Etiketatu behar hori...**
- Bai bai izen bat jarri beharra, neska edo mutila, asko daukagu oraindik ikasteko,
- **Agian lehenengo momentutik egiten dena da ez; "ai zenbat mutil dauzkat zenbat neska..."**
- Eta Lur izena balima dauka, zer izango da neska mutila... izan dadila nahi duena, baina bai bai oraindik ere horrela egiten da.
- **Zehaztu beharra agian ere, norberaren segurtasunerako eta komodidaderako ez..**
- Bai bai eta horrela banatzen ditugu 2 urteko haurrak gelak egiterako unean ere, neskak eta mutilak, parekatuta...
- **Orduan binarismo horretatikan, zuk adibidez kontzientzi hori badaukazu ez badagoela oraindik egiteko ez...**
- Bai bai dudik gabe, oraindik bidea oso luzea eta handia egin beharra dago.
- **Eta gero hemen gizonezko presentzia bakarria atezaina**

- Bai garai batean izan ditugu hemen, gehienez ere bi gizonetzko eta beno ongi dago, badakizu hori gizartean dago, zenbat eta beherago adin txikitako "zaintza" deituan emakume gehiago eta zenbat eta gorago, gizonetzko gehiago aldatzen ari da baina oraindik ere kostako da eta nik uste det, denetatik ikusi behar dutela umaik baino...
- **Eta inplizituki XXXn figuraz jasotzen duten**
- Ba beitu, imajinatu zer jasotzen duten, dagoen bakarra da eta da dena konpontzen duena, bai bai lehengoko garaien presentzia hutsa,
- **Marko bisual hori orduan oraindik badagoela ez**
- Bai bai, kistona, eta hori guk zuzendari emakumia daukagula, zeren askotan gertatzen da ere, gizonetzko gutxi dago eskoletan eta askotan, hoiexek zuzendari beti, eta guk jada urtiak daramatzagu emakumearekin. Txiki hauek ez baina gero jada eskola handian ikusten dute. Kuriosua izaten da, eskoletan gizon gutxi eta horiek zuzendaritzan...
- **Eta azkenik jada hobekuntza arlon, zer ikusten dezu garbi zerbaiten beharra, bai zurea eta baita eskolak egitea daukana edo... Zure jardunean txip hau aldatuko zenuke edo bestea eta eskolak ba ahulgune hau edo bestea du...**
- Nik uste asko, formakuntza jaso behar genukeela, batez ere entzun eta entzuten dezun horrekin gero norberak gauzak aldatzeko eta kolokan jartzeko bidea irekitzen du, batez ere entzun, ezagutu zer dagoen... horrela norbera bakarrik askotan zaila da dagoen guztia ezagutzea beraz, horixe entzun, jaso, ze hainbeste fronte daude eskolan ba horrelakoetan gauzak kolokan jartzeko nik hori formakuntzak
- **Eta eskolari ikusten diozun plangintza edo proiektu edo, jo hemen hutsune bat daukagu honen inguruan orokorrean**
- Ai ez dakit, ez zait etortzen
- **Eta azkena jada, nahiz eta gidoian ez egon, iruditzen zaizu, aldaketa horiek edo begirada aldaketa horiek egiteko momentuan iruditzen zaizu eragina daukala eskola batian denbora asko irakasle fijoak egotea edo ez edo bai, edo aldaketak errazago eman daitezke irakasleen arteko harremanak ezagunak direnean edo..**
- Ez ez du zertan, nik uste det, olatuak bezala izaten direla, ez mugimenduak bezala segun zer datorren, ze formakuntza egin berri dan, bakoitza ere norbera non dagoen, eta batzutan iruditzen zaizu gauza batek ez dakit zergatik funtzionatzen duela eta beste batek agian itxura oso ona du baina gero ez eta... beno horrela.

## 6. Eranskina: Transkribapena 5

- **(Ikerketaren aurkezpena egin ondoren) Aurrena, izena, adina eta zenbat urte daramatzazun ikaskuntzan edo piska bat egin dezun ibilbidea hezkuntza munduan.**
- XXX5 naiz, eta daramazkit 12-13 urte. 42 urte ditut. Lehen hezkuntzan Haur Hezkuntza eta hezkuntza berezia badazkat. Orduan LHn hiru lau kurtso edo ordezkapenetan. Hau da hemen hirugarren urtea, eon nitzan hemen orain dela 11-12 urte hemen urte bete, ordezkapen bat egiten ikasturte osua. Ta gero hemengo ikastetxean egon nintzan hemen lehenengo mailan maiatzetik bukaera arte eta oposaketak atera nituen eta harrez gero hemen eta hau da hirugarren urtea.
- **Eta hemen egon zea denetan bost urtekoekin edo nonbait aldatu zara?**
- Ez, oran dela 11 urte egon nintzen hemen 2 urteko gelan, LHn egon nintzenean lehenengo mailan egon nintzen eta orain 4-5 egin nuen lehenengo bi urtetan eta oraingoan berri 5 urteko gelan, azkenian da geratzen zaiguna, azkenengoa sartzen dana, geratzen zaiona.

### 1. Atala: ESKOLAREN JARDUNA

- **Bale ados, beno bereizi det bost azpi atal edo gaietan; orduan hasteko eskolak egin duen ibilbideari dagokionez, izan da segregatutik mistora eta ondren hezkidetzara, iruditzen zaizu momentu honetan, hezkidetzan hezten direla haurrak edo hauxe izena besterik ez dela edo?**
- Lehenengo jakin behar det zer nahi dezun esan hezkidetzara esatekin,
- **Benoba, hezkidetzara berez, da mistoa izatetik plan bat jartzea hezkidetzan benetan oinarri batzukin berdintasuna, parekidetasuna bien arteko maila, genero ezberdintasunik gabe hezten diena, horiek dira gutxi gora behera hasiera batean jarri ziren oinarriak, jarri zirenetik gaur egun arte bilakaera bat egon da....**
- Hau zentrotik edo nire paperetik esatezu?
- **Zure paperetik nahi badezu eta gero eskola moduan...**
- Nire paperetik egia esan ez det ikusten hezkidetzara izatia, zerbait zuzenian egin behar dana denik, egunerokuan txertatuta dagoen zerbait da orduan bereziki ez det lantzen, edozein gai edozein egoera agertzen darian momentuan bertan erantzuten zaio, orduan ez da etiketa bat nik jarrita daukadana. Eta hori dago noski kontuan hartuta azkenean egunerokotasunean norberak daukan begiradan, eta begirada hori zuzenian sartutakoa da nire ibilbide pertsonalagatik, esperientziagatik.... hori guztia orduan bai hori zuzen zuzenian.
- **Eta eskola moduan zer esango zenuke?**

- Eskola moduan ba nik uste azkenian ere, eskola zentru bezela ere noski bai hor dago, eta etiketa polit hori jarrita, hezkidetzaz eskola integratzailea, hori guztia, baino asko gelditzen da irakasle bakoitzan neurrian eta noski eskolak ezin du horretan delegatu, bakoitzak zer egin duen horretan, berak egin beharko luke zerbait, gainera badago talde batere hori lantzen duna, orduan bai eskolak badauka, hori kontuan hartuta eta horren inguruan orokortasun batian bai eman behar dira, eta bai eskolak bai bereziki lantzen ditu urtean zehar dauden egun berezi guztiei lekua ematen dietelako, orduan eskolak bai lekua ematen diela horrelakoei, bai azaroak 25ekoari, 17koari, danak daude hor txertatuta. Orduan nik uste det eskolak bai bere funtzio hori betetzen duela, orduan gero da, errealitatea da eguneroko horretan zer dagoen, eguneroko horretan bakoitzak zer egiten duen, eta horretan bakarrik ez gelditzea. Begirada zabala izatea, baino beno, eskolak bere txoko hori eskeini dio eta badago, asko da, eta bai askotan bakoitzak gutxi egite hori ere asko izan daiteke. Gero interesgarria da gure artean sortzen diren eztabaidekin, hizkuntzakin,
- **Hortik ere sortzen direla beste hainbeste ez...**
- Bai eta ez da bakarrik, egoera hau bakarrikan ere ez da ematen ikasleekin guk gure, arten, helduen bileretan ere, eta hizkuntzekin hor, “a hombre etorri zea...” eta nola “hombre”? Horrelako zea txikietan, adibidez ni bereziki banaiz zea puntillosa eta horretan jarduten naiz.
- **Eta badakizu zehazki eskolak ze urtetatikan edo hasi duen martxan bereziki proiektu hori?**
- Data bereziki esaten ez dakit, orain dela 11 urte 2 urteko gelan egon nintzenean ere, zeuden gelan arabera errealitatea ezberdina da ere, eta bi urteko gelan beste modu batea zaude zentratuta gelan orduan, bereziki eskola egiten ari dan hori, beste plano batian gelditzen da, orduan ez dakit esaten, nik uste hau berez, hezkuntzatik plan hau jarri zuen, ia bada urte dezente jarri zutela... jajaja. Oraintxe etorri zait, Mendaron nintzenean LHn, hezkidetzako arduraduna nitzan eta berritze gunera joaten ginen zentro ezberdinetakoak, eta ez da hainbeste urte e.. Mendaron, hemen zenbat esan det? ai ba lau urte atzera joan da orduan bai, eta ez zen lehenengo urtea, jada baziren hiru lau urte martxan zegoela, orduan joan gaitezke zazpi zortzi bat urte atzera, 2012 inguruan.

## 2.Atala: HAURREN EKINTZAK

- **Ados, ederki! Orain pasako gara, hurrengo blokerak bai, haurretan zentratuz, ikusten dituzun harremanak, erlazioak, horiek guztiak kontuan hartuta, haurrak iruditzen zaizu berez badakaela, berezkoa duten naturala dan, ezberdintasunik.**
- Ez kutsadura helduena da, baina %99,9999. Ez daukate kutsadurik, kutsadura sortzen degu, helduek, gizarteak, komunikabideak...
- **Erreferente edo eragile horiek inguruan daudenak**

- Bai eta pisu handia ere etxian badakala, eta gero pisu handia daka ere hemen kultura aniztasun handia dagoenean hori ere igertzen da, jaso duten etxian daukaten balore horiek, ba igertzen da gero, gertatzen da etxian dagoen errealitatetik gero honea etortzean ere txoke bat gertatzen da, gure esku dago, errespetatzia etxeko hori noski, baina ikustaraztia ikasle horrei beste gauza batzuk badaudela. Orduan, gauzatxo txiki horrekin haurra aurrera dijuan heinean eragina egiten badia, ba zerbat lortu de, baina ezin deguna egin da horren kontra jun.
- **Eta rol horietan esango zenuke erreferente nagusia familia dala, familiako baloreak, familian ikusten dutena...**
- Mmmm bai. Neretzako pisu gehiena daukana familia da, azkenean, puf danak, guk, ikasliak, danak familin egoerakiko fideltasun bat daukagu, eta hori da naturalki etortzen dan zerbat, orduan, horregatik esaten dizut, familitikan norbait etortzen bazaio eta esaten badio adibidez, "ezin dia ezkondu bi mutil edo bi neska", orduan klaro, zu hasten baldin bazea, hori gezurra dala, eta noski ba ikasle horrei jada kolokan jartzen diozu, eta orduan, adierazten diozuna, da ba beno, berari etxealdetik hori esaten badie ere, badaudela beste egoera batzuk eta beste errealitate batzuk, ahal badezu, jarri norbait ezagutzen dutena edo norbait erreferentzia dutena, ba kasu horretan prest badaude noski, orduan ba efektu gehiago edo eraginkortasun handiagoa daukagu, ikasle horri etxekoa modua batean errespetatuz eta beste ate batzuk irekiz eta ikustarazten bai hori da. Eta kasu horretan zenbat eta adin txikiagoekin egin ba eragina beno, errezagoa da, hobia edo txarragoa ez dakit, baina bai errazagoa, batez ere, zenbat eta txikiago, gutxiago kutsatuta daudelako esan dezagun.
- **Eta alde horretatik, beraiek errepikatzen dituzten jarrerak, sinbolikoa hemen ez dakit**
- Sinbolikoa psikomotrizitatean daukagu eta patioan.
- **Eta ikusten dituzun harreman horiek badira, erreproduzituak..**
- Beno danetik daude, bai. Gero gaiak ateratzen badituzu gelan hortara ere jotzen dute, orduan adi piska bat egon behar duzu, elkarrizketa horiek nondik doazen eta gero zuk modu indirekto batean ateratzen dezu gaia eta orduan jada, transformazio bat lortu dezakezu, batzutan bai beste batzutan ez. Hemen gelan daukagu mantala arrosa bat, nere alabana dana, eta izantzana eta haurren batek ez balimadaka ba hoixe dao, orduan jazten du. Mantal horrekin norbaitek esan du baita ere edo parre indio batak bestiai, parre ein dun horrek ere jantzi du baita ere, beste momentu batian, orduan hor da hizketaldi bat sortzea kasu horrekin, errespetua eskatzea besteekiko eta hor. Baina drama bat egin gabe eta beraien artean konpondu badia ba utzi piska bat beraien modu hortan, hor piska bat izan behar degu, airea ematen ere, malgutasun bat eta eduki behar degu piska bat bista, ibiltzeko edo ez sartzeko modu zakar batian. Orduan bai eman dia, ez dia ematen beti, hori eman zanak, hori ein tzunak ere aurreko batian jantzi zun. (...). Gai horiek adibidez, sinbolikuan ere ematen dia, ba bi ama dauzkala eta eztaikit zer daukala.. bai somatzen dia,

baina nik uste gaiak ateratzen dianian edo ez dianian ateratzen edo garrantzia kentzen diozunian edo...

- **Eta esango zenuke hori orain gehio ikusi ahal dezula edo, zure ibilbidea kontuan hartuta edo**
- Nire ibilbide pertsonaletikan gai hori, beti dakat presente jajaja, orduan somatzen da, inguruko realitatean arabera, eta nire ibilbide pertsonalian ere erronka bezela izatetik, modu hortan izatia beste modu batian eraginkorragoa edo xuabegoa edo, nik ibilbide pertsonala ere aldatu det, esperientziak ere erakusten duelako, eta nere etxeko errealitatea ere guztiz ezberdina da eta horrek guztiak laguntzen du, orduan momentu batian, beste momentu batian zerbait entzuten baldin badezu, hola “ezin dia posible bi ama ze eztaikit ahhh”, baina beno hori da segun bakoitzak ze heldutasun ze esperientzia ze bizipen ditun ba, gauza, orduan nik ustet hor klabe inportatia dala, errespetatzea kultura bestiena baina zabaltzia ere beste ate batzuk badaudela eta. Azkenian ez hezkidetzan bai, danako ekintzekin da, ematen dian, eman daitezken egoera guztiekin bai.
- **Eta horrela bitxikeriaren bat, esate zula jo, edo momentu batetik aurrea edo hitz batekin edo euki dezun txip aldaketarik, lehengoan esaten zidaten, amari esan ordez ba etxekoei edo... Esperientzia edo bitxikerin bat gertatu zaizuna umen batekin inkluso irakasle, gurason arteko harremanetan posible izan dezuna bizi ta ikustia**
- Puf, beno bai ni hemen sartu nintzenian, orain dela 12 urteko lehenengo izan zena, gehio pertsonala da e, klaro nire bikotia, jakintzat edo emantzat, seme alabak eta guztiyak eukita gizonezkoa zala, beno pues gero ia denborakin esan izan dit, “ai ze lotxa pasa nun orduztikan”, ta nire hoi tokatu zait behin baino gehiagotan eta momentu batian, igual hasierako momentutan iruitze zaizu esplikazioak eman behar dituzula, baino beste batzutan ez, ya adinakin ta zeakin ba ez esplikaziyuak eman beharrik ez daukazu. Ta orduan baina, gero ja konfiantza sortu dezun jendiakin edo adierazten dizue zer, orduan modu pertsonalian gehiago.

Gero bestela, iaz 4-5 zirkulazioan egon ginanak ere bazeuden bi ama zeuzkaten, hemen alboko gelan ere badadue bi ama dituztenak baita ere ordun beno. Iaz adibidez, iazko bi urteko talde bat eduki nuen zan ikasle bat aita marrokiarra zeukana eta ama hemengoa zana, eta zeukaten familian aman aldetik, aman anaia nahiz eta zakilakin jaio emakumea zela eta orduan hor etxean, karo, pentsa ze koktel potentia zeon, kultura aldetikan, amak beraiek ere zailtasunak zituztela hori dana digeritzen, kasu hortan baina umian hizkuntza zan kontrakoa guztiz, orduan klaro, umiak dana somatzen dute, dana somatzen dute, orduan zeukan borroka bat egoera ezberdinakin, eta pues osaba izeko, beria zer zanakin eta adibidez ez zuen onartzen kasu hortan, lau bost urtekoekin, gero amakin hitzeiten edo bileran edo ateratzen zuen gaia hori eta beno, bera onarpenetik zegon años luz kasu hortan. Eta gero hor zeon txoke handiak zeuzkan ikasle honek, baino beno emozionalki ere orokortasun

batian ere modu hortan, ez zegoen oso estable, orduan karo gaia ere hor dago baina, gai hortaz aparte ere jokabidea danakin gutxi gora behera antzeko zerbait da, orduan jokabide ohiko batian zailtasunak baldin badituzu ba holako batian ere berdin.

- **Eta hor adibidez, orain dago mugimendu bat genero binariko, edo binarismo horretan, beti etiketatu beharra, neska edo mutila... gu ere bai: “zer da neska edo mutila”, horren inguruan iruditzen zaizu oraindikan badagoela...**
- Ufff asko. Hor oraindik pisu ikaragarri, ikaragarri, ikaragarria... Nik ere hanka sartu det behin baino gehiagotan ere, puff ikaragarrizko pisua dauka bai, gure gelan bi ume jaio dira, ba nola izena du?, beraiek adierazten dute, mutila neska eztaikit zer, igual da zuk aldatzia piskat zea hori norabide hori eta bai ze izen jarri diozue, haurdunaldian ta ere oso tipikoa da “a zer da mutila edo neska, zer espero dezue ba”, bai eta orduan hor oraindikan...
- **Aspektu honetan iruditzen zaizu oraindik orduan atzerago gaudela**
- Bai bai, baina hor geratzen dana da ere, horren edo horrekin zer erabilera ematen dan, ze azkenian naturaltasunez...
- **Ez da jartzen diogun izena baizik eta izen horrek dakartzan ondorioak...**
- Bai hori da, orduan, naturaltasun batez, hanka sartzen badezu adierazten dezu edo ez dezu adierazten, orduan hor gero da horrekin zer irakurketa egiten dan, zein erabilera egiten da, nora eraman nahi dan hori guztia, orduan azkenian dramatizatzen badezu hori guztia, ari zea, harri kozkor batzuk sortzen, ikaragarriak. Noski euki behar da kontuan hori guztia, baina jendiak errealitatia eta jendiak daukan hori guztia, noski kultura kanpokuaz aparte, hemen hezitako horrek, ba transformazioa behar du eta ba hor eduki behar da, esku piska bat eta eduki behar da modua, eta prozesu bat. A beitu, oraintxe esangoizut, lehenengo astian bertan gertatu da: beste gelakua dan ikasliak bi ama dauzka. Patioan gaude, eta etortzen zait ikasle bat, esan du Izadik (ez da izen erreala) neskak ezin dutela parte hartu.
- **Eta da dauzkana bi ama ez....**
- Jajaja baii, nik hor ai (txalo) esta es la mia... esan nion, irakasleari etorri honea, inun irakasle pila bat elkartu nahita bere gana juteko, danak emakumiak ginan, eta orduan jun ginan beregana eta komentatu genion, aber zer pasatzen zan, Baino karo bera kasu hortan, etzan inongo kontzientziakin ari, neskak ezingo zuten ez, baina gehio zan gaude jada bi o hiru eta ez det nahi gehio inor sartzia, hori izan daiteke, baino beno, piska bat egoerai zea emateko jajaja, egoera emateko nahita nik inun, oso kontzienteki nahiz eta jakin izan zitekeela, bi hiru gaude eta laugarrena zu neska ze beno ba orduan aitzaki bat behar det, “ba betaurreko dunak ez dia hemen”, ba hiru gaude eta laugarren bat ez det nahi.
- **Eta justu hortxe jartzen diazue**

- Karo eta orduan, hirurak mutilak gaude, zu neska zea, a orduan hemen neskek ezin due ibili. Baina beno, kontziente zan, egoerari hori aprobetxatuz esan behar diozu horrelako egoeretan nere baliabidea da, igual esan dezakezu, hiru zaudetela eta laugarren bat ez dezula nahi, eta ez neskak... Horrelakoak moztu behar dia, noski moztu behar diala, baina gero baita ere esanez, beno baina zein zan benetan adierazi nahi zenuna, igual zala neska zala, etxeko errealitatea da baina igual, erresistentzi batian dago etxian ere
- **Balitekeela bere gelakideei ikusten diena ere,**
- Bai eta hor bera igual sentitzen da mutila, erreferentziak dauzka bi ama eta hor biologikoki ere badaude eragin batzuk non erreferentzi batzuk behar ditu izaki bezela, besteik gabe, biologikoki behar ditu kasu horretan. Eta hor saiatze gea ba beste modu batzutan, anaia zaharragoa dauka kasu horretan eta bestia daka arreba, hiru dia, anaia zaharragoa da ze XXXn gelan egon zan baita baina egoera hori eman zan, hor gure esku hartzea zein da baita, hori egin, piska bat pentsatuaraztea aber zein zen, ikustaraztia ez neska zealako edo bai, baina aber fondoa zein da eta fondo horri piska bat buelta eman.
- **Joe, errez esateala bai badao, baino gero igual momentuan pasatzeko bitxikeri bezela jo.**
- Potentia da hori bai. Azkenian, bai bai diferentzia zein da dramakin hartu edo umoriakin hartu, bizitza umoriakin hartu behar dezu etortzen diata bestela bakarrikan, bai orduan da eguneroko dinamika horietan hola jutia.

### 3.Atala: GENERO IDENTITATEAZ DUTEN IKUSPEGIA

- **Eta gero jada irakasle identitate bezela ikusten dezu hausnarketa hori egin dala ematen ai dala, iteko daola, dala prozesu bat puntualki...**
- Gai hori ematen da, gertatzen da norberak, irakaskuntzan, erreferentziak nahi o nahi ez, gehienak tendentzia dala femeninoa, bai hori da orduan, nahiz eta alde batea utzi irakaslea bera, mutila sentitu, neska, dana dalakua, erreferentzia bezela horrek badauka, gero beste gauza bat da, e irakasle bakoitzak ere dauzkan gustuen arabera ze gauza iten ditun, ze tendetzi daukan batea bestea ez dakit zer. Nere ikasliak talde berriakin juten banaiz eta hasten baldin banaiz, talde honekin lehenengo aldiz jun nitzan, ai zian futbolian eta sartu nitzan, "ou bakizu ta?" jajajaj. Baina adibidez beste taldeakin askotan, asko jolasten nintzan kasu hortan baina, bitu oraindikan ze gauza...
- **Ta diala detaile xume batzuk baina...**
- Eta hemen ikusten badezu, ehuneko laurogehia, laurogehita hamarra emakumiak baldin bagea, perfil antzekoak dira laurogehita bosta. Orduan beno, edozein lekutan fijatze zea, gelata sartzen zeanian fijatzen hasten zea, patiyoa juten geanian fijatzen haste zea, bakoitzak ikaslekin ze nola, ze jarrera, ze mugimendu, zertan parte hartu, ze zea iten dun orduan, bide estilo hori,
- **Konkretua edo, dauzkaten ikuspegik aspektu horretan**



- Bai bai eta orduan hemen ere portzentaia altu bat dago, geroz eta gehio zerbait ikustea baina, oso kontatuta. Zuek zenbat zeate?
- **90etik 4.**
- Karo, ba 86 horien artean egoera ezberdinetan ibiltzen zeatenak asko egongo zeate, baina hala ere, portzentai handi bat da "las andereiño" jajaja, andereiño, estilo hori da ez, piska bat... praktikak iten dituzuenian horregatikan da interesgarria gela ezberdinetan ibiltzea, aberatsa da, gustatuko ez zaizuna zein da, eta zein ez eta zu ere osatzen juteko zure horretan.
- **Eta orduan jada, zure irakasle identitate bezela, ze esango zuk hitz baten**
- jajaja, hitz baten? ez dakit hola esan diazunian berdintasuna etorri zait baina, puf ez dakit, nik uste det, berdintasuna baina hola etorri zaitelako e, ponpoxo geratzen da baita ere hitza esanda. Baliabideak, bai baliabideak izango litzake igual egokiya, norberak dauzkanak eta begirada, bai begirada igual, irekita eotea, begirada zabal bat eukitzia da potentiena eta guretzako benetan herramienta nagusia eta garrantzitsua. Ze irekita baldin bazaude dana hartzeko prest zaude; kritikak inportantiak, non, bai baina ez kritikak ez geldituta in da ez, gero horrekin zerbait egiteko, sortzeko, aldatzeko, eta alaguak ere bai inportantia da jasotzia, behar dia, nahi det esan, em zuk jasotzia besteengandikan nahi det esan, askotan zuk onartzia alago horiek ze askotan lotsatu iten gea holako kasutan askotan, ta beno piska bat zaintzen ditugu, gero azkenian sintonian ikastetxian nola dagon ta nola zauden eta, horrek eragina badaka, baina begirada zabal batek atiak irekitzen ditu daneako, hezkidetzarako eta beste daneako, bai guztirako.
- **Eta hobetzeko aspektutan, pertsonalki, irakasle talde bezela ta baita eskola bezela ere.**
- Bai hobetzeko beti dago azkenian, beno pertsonalki da hor egotia baita ere akomodatu gabe, hori da erronka inportanti bakoitzana, neria behintzat, orduan, noski momentu batzuk dia lasaiagoak eta beste batzuk ez baina hor tik bat edukitzea e! Bai ez hor irekita egotia. Eskola mailan, beno ohitura bat ere ez bihurtzia gauza hauek, bai txertatzia eguneroko batian kasu hontan, beste gun horiek izan daitezke batez ere gogorarazteko, batez ere jende askok lana egin dulako eta sufrikariyo asko egon dalako egun berezi horietan, orduan beno da umoriakine ta beste alaitasun batekin ospatzen jutia hori, jakinda nun eman zan, zer gertatu zan, a hori eskertza bat emateko, hori guztia sufritu duten hori guztiai.

Eta irakasle bezela da ba beno komodidade horretan ez erortzia, eta deskubritzia gauzak jutia eta gauza berrik deskubritzia ba erabiltzen dan, mutila jaioko da neska jaioka da, jo ba ze beste modu batea egin dezakegun hor sortzen dian gauza horiekin ba hor segitzea horri begira, bai. Gauza berriak ekartzia ondo dago baina oinarrian dagon hori ahaztu gabe, askotan ematen ditugunak ebidentetzat eta ez dia eman behar ebidentetzat, a ulertuko du hori edo beno bazpane guazen erreparatzea eta...

- **Eta jada azkena, danai egin diet eta beno ba eingo det. Aldaketa horiek emateko edo bakoitza ez erortzeko komodidade horretan iruitze zaizu, zenbateko eragina izan dezake eskola batian akomodatze horrek, esan nahi det eskola batian nago ni hemen denbora luzez hemen eta badakit funtzionamendua, badakit nun dagon, badakit gelak nolakuak dian...**
- Alarma gorri gorria. Hor aire berriak etortzen dianian asko igertzen da, jende berria etortzen danian, berriz eskatzen du piska bat deserosotasun batian jartzia, orduan egon behar du deserosotasun horrek egon behar du, orokortasun batian ez zeatzeko. Bai orain dala hiru urte etorri nintzianian irakasle batek esan zian a “baina zu hurrengo urtian ez zea egongo ezta”, hori ona da neretzako. Hori entzutia ona da neretzako jajaja. Karo ona da hori entzuten dezu baina hori kudeatzen hasi behar zea, eta momentu batzutan hobeto zaude eta beste batzutan ez eta paso iten dezu eta hor adibidez denborakin hor juten zea akomodatzen orduan pizgailu batzuk, behar beharrezkoak dia.

Ze beno azkenian pertsona bezela, kontua da hor borroka batetikan ez abiatzea, ze borroka bezela hartzen baldin badezu ez du inork irabazten ez zuk eta ez beste aldiak orduan erronka bezela hartzen jutia gauza horiek. Beno egia esan gero oportetan eta asteburuan eta oxigeno handia ematen dute, orduan bada erronka bat neretzako astelehena hasten danian, desberdintasun handia dago eta inguruaren arabera eta zirkulatzen dezun horren arabera eta horrek guztiakin eragin handia dago, orduan bai, nik neure buruai eskatzen dioten hortan ere orokortasun batian, eta hor adibidez zuzendaritza batek zailagoa dauka kasu hontan e, baina azkenian hor ere geratzen dia aldaketak zuzendaritza aldatzen juten dia eta sartzen danak beti dazka erronka eta amets berriak, ilusio berriak ez, ze ilusioa desagertu egiten dia jajaja.

Amets berriak eta gauza berriekin etortzen dia. Baina beno, hori ere bada neurri batian neurgailu bat eta ematen dia, hemen ere ikusten dia irakasle asko urte asko daramatzatenak eta profesionaltsuna eskatzen du horrek eta hezkuntzan profesionala izateko ere egon behar dezu etengabe ikasten, formatzen, entzuten, elkarrekin iten dutenak, orduan horrek asko adierazten du eta hortarako prest daudenak ere onartzen jajaja.

- Bai ze hori da zailena, ze zuk talde batian ere 20 daude, gela batian bi dia mugimendu handia adierazten dutenak eta ematen du 18 dala, eta orduan karo ai gea, bi horiei beidatzen 18ak ahaztuta, orduan talde batian lanian ari gea, 4, 5, 6 daude irakaslek ez dutenak egiten, eta aitzakian nola horiek ez duten egiten... eta orduan 16 gea, bestiak gehio gea ba, baino karo, iten ez ez dezuna beidatzen bada, iten ez dezuna ezin da egin! Orduan guazen egiten deunak, edo egin dezakeunak edo horiei beiratzea, eta poliki poliki segitzea. Asko da hausnarketak egitea, interesgarria da horretarako, kontziente iten gealako, orduan kontziente iten gean heinean, karo barru guztiak ere gehio muitzen dia e baina, aizu lanian gaude soldata iristen zaigu eta irabazi beharko deu.